

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

GAITASUN SOZIALAK LEHEN HEZKUNTZAN GARATZEKO PROGRAMA BATEN DISEINUA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Galín Guridi, Ane.

ZUZENDARIA: Ramos Díaz, Estibaliz.

Aurkibidea

1. Sarrera	4
2. Justifikazioa	4
3. Marko teorikoa	6
3.1. Gaitasun sozialak	6
3.1.1. Kontzeptuaren definizioa	6
3.1.2. Gaitasun sozialekin lotutako kontzeptuak	8
3.1.2.1. Enpatia	8
3.1.2.2. Asertibitatea	9
3.2. Gaitasun sozialak haurtzaroan.....	10
3.2.1. Konpetentzia soziala haurtzaroan eta haren lorpena	10
3.2.2. Arazoak harreman interpersonean	13
3.3. Gaitasun sozialak eskola testuinguruan.....	16
3.3.1. Gaitasun sozialak hezkuntza curriculumean	16
3.3.2. Irakaslearen papera.....	18
3.3.3. Gaitasun sozialak ebaluatzeko tresnak.....	23
3.4. Gaitasun sozialak lantzeko programak	24
4. Helburua	27
5. Proposamen didaktikoa	27
5.1. Testuingurua.....	27
5.2. Metodologia	31
5.3. Edukiak.....	32
5.4. Helburuak	34
5.5. Baliabideak	35
5.6. Jarduerak.....	35
5.7. Ebaluazioa.....	41
6. Emaitzak eta ondorioak	42
7. Mugak eta hobekuntza proposamenak	43
8. Bibliografia.....	45
9. Eranskinak.....	47

LABURPENA

Gaitasun sozialen lanketa eskoletan ahaztuta gelditzen den gaia da. Haur Hezkuntzan haien lanketa hasten da, baina Lehen Hezkuntzan horrekin jarraitzea garrantzitsua da, umeei haien egunerokotasunean behar duten gaitasuna da eta. Hala ere, gaur egun eskoletan oraindik eduki eta helburu kognitiboetarako lehentasuna ematen zaie, sozialak alde batera utziz. Horren ondorioz, umeen garapen integrala lortzea ezinezkoa bihurtzen da, nahiz eta askotan hau lortzen dela esaten den, horren garrantzia gutxi ematen zaie eduki eta helburu sozialei eta.

Hori dela eta, lan honen helburua lehen hezkuntzako bigarren zikloan gaitasun sozialak garatzeko programa bat diseinatzea da. Kontzeptua nahiko zabala da, baina programa gela jakin batean aurrera eramateko diseinatuta dago; hortaz, horren beharretara eta ezaugarrietara egokituta dago. Hori dela eta, haren jarduerak gaitasun sozialen bi elementu garatzeko pentsatuta daud; enpatia eta asertibitatea, hain zuzen ere. Horrez gain, programa ondo burutzearren, lanaren hasieran gaitasun sozialen inguruko marko teoriko bat aurkitzen da, beharrezkoak diren oinarriak lortzeko. Izan ere, profesionalen formakuntza gai honen inguruan oso eskasa da.

Hitz gakoak: gaitasun sozialak, enpatia, asertibitatea, lehen hezkuntza, esku-hartzea.

RESUMEN

Las habilidades sociales son un tema que suele ser olvidado en las escuelas. Se empiezan a trabajar en educación infantil, pero es importante continuar haciéndolo en primaria también, ya que son algo necesario en el día a día de todos los niños y todas las niñas. Aún y así, hoy en día los objetivos y contenidos de carácter cognitivo tienen preferencia frente a los sociales en la escuela. Por eso, es imposible llegar a conseguir un desarrollo integral de los alumnos y las alumnas, aunque a veces se diga que se consigue por la poca importancia que se les da.

Por todo esto, el objetivo de este trabajo es diseñar un programa que sirva para desarrollar las habilidades sociales en una clase de segundo ciclo de educación primaria. Es un concepto bastante amplio, pero el programa está pensado para llevarlo a cabo en una clase concreta, por lo tanto, se adecúa a sus características y necesidades. Es por eso que las actividades del programa están orientadas a desarrollar

la empatía y la asertividad de los alumnos y las alumnas. Además, con el objetivo de desarrollar el programa de manera satisfactoria, al principio del trabajo se encuentra un marco teórico en el que se explican las bases e ideas necesarias para poder llevarlo bien a cabo, ya que la formación de los profesionales de la educación en cuanto a habilidades sociales suele ser muy escasa.

Palabras clave: habilidades sociales, empatía, asertividad, educación primaria, intervención.

1. SARRERA

Lan honetan Lehen Hezkuntzako gela batean gaitasun sozialak garatzeko programa baten diseinua aurkitzen da. Horretarako, bi atal nagusi bereizten dira. Alde batetik, gaitasun sozialen inguruko hurbilpen teoriko bat egiten da. Izan ere, profesionalen formakuntza gaitasun sozialei dagokienez oso eskasa izaten da, jorratzen ez den gaia baita. Beste aldetik, berriz, programaren diseinu osoa aurkitzen da.

Lana ondo ulertzeko, Gasteizko ikastetxe publiko baten gela batean aurrera eramateko diseinatuta dagoela jakitea garrantzitsua da. Izan ere, klase hau nahiko gatazkatsua da, ikasleen arteko arazoak oso larriak (irain eta komentario oso itsusiak) eta ohikoak bihurtu direlako. Horren ondorioz, umeei haien artean komunikatzeko modu osasuntsu eta egokia aurkitzeko, horrelako programa bat aurrera eramatea beharrezkoa dirudi. Hortaz, nahiz eta gaitasun sozialen barnean hainbat kontzeptu landu ahal diren, gelaren arazoak, egoera eta ezaugarriak kontuan hartuz, asertibitateari eta enpatiarri garrantzia emango zaie lanean. Izan ere, jarduera guztiak hauek garatzeko bideratuta daude.

Honez gain, COVID-19 dela eta, programa aurrera eramatea ezinezkoa izan dela aipatzea beharrezkoa da. Hortaz, lana esku-hartze bat izan ordez, diseinu bat bihurtu da.

2. JUSTIFIKAZIOA

Gradu amaierako lan honen egilea bezala, lan hau egiteko bi arrazoi nagusi egon direla esan behar dut. Alde batetik, arrazoi pertsonalak egon dira eta, beste aldetik, akademikoak.

Arrazoi pertsonalei dagokienez, lana gela baten egoera aldatzeko nahiaz jaio zen. Izan ere, Lehen Hezkuntzako graduaren laugarren mailan egin behar diren praktikak niretzat oso bereziak izan ziren. Horren arrazoia oso zailak izan zirela da, hezkuntza arloan izan dudan erronkarik handiena, baina aldi berean esanguratsuenak.

Gasteizko Angel Ganivet-Santa Luzia ikastetxean egin nituen, bosgarren mailako gela batean. Bertako giroa oso zaila zen, egunero ikasleen artean gatazkak sortzen zirelako, errespeturik ez zutelako eta haien artean harremantzeko modua oso desegokia zelako. Hori dela eta, gradu amaierako lanaren gaia esku-hartze sozioemozionala izan ahal zela ikusi nuenean, hau aukeratu nuen gelaren egoera hobetu zezakeen programa bat diseinatzearen ideiarekin, betiere 236/2015 Dekretuak zehazten dituen edukiak kontuan hartuz, eskolara bueltatzeko aukera izango nuela uste nuen eta.

Behin gaia esleituta, gelaren ezaugarriak sakon aztertu nituen eta sortzen ziren gatazkak neurri handi batean ikasleek modu osasuntsu eta egoki batean harremantzen ez zekitelako izaten zirela ikusi nuen. Gainera, arazoak egoten zirenean, umeez elkarri min egin nahi zioten, komentario oso itsusiak esanez. Horren ondorioz, gaitasun sozialak lantzeko programa egitea erabaki nuen, asertibitatean eta enpatian oinarrituz. Izan ere, nahiz eta horrela gelaren egoera guztiz ez konpondu, aurrerapauso handi bat izango litzateke.

Zoritxarrez, eta lehen esan bezala, COVID-19 dela eta, programa martxan jartzea eta gelaren egoera hobetzeko saiakera hau egitea ezinezkoa izan da.

Beste aldetik, arrazoi akademikoak daude. Izan ere, ikasle guztiok graduaren amaiera lan hau egin behar dugu. Honen helburua ikasleok datuak bilatzeko, kudeatzeko, antolatze eta interpretatzeko gai garela erakustea da, baita gai desberdinen (gizarteari, zientziari, teknologiarri edo etikari lotuta egon daitezkeenak) inguruko hausnarketak egitea eta iritzia ematea ere. Gainera, iritzi eta hausnarketa horiek kritikoak, logikoak eta sortzaileak izatea bilatzen da.

Amaitzeko, Unibertsitate Kontseiluak dioen moduan, gradu amaierako lana egitean hainbat gaitasun garatzea bilatzen da. Hasteko, graduan zehar lortutako ezagutza teorikoa eta praktikoa erabiltzea nahi da, baita teoria eta praktika gaurko hezkuntza errealitatearekin lotzea eta ezagutza berria sortzea ere. Modu horretan, irakaskuntza-ikasuntza prozesuarekin lotutako arazoak konpontzeko gaitasuna garatuko da. Jarraitzeko, eskolatzeko-prozesuak hobetzeko proiektuak diseinatze beharrezkoa den kalitatezko informazioa hautatzea, aztertzea eta sintetizatzea espero da. Honez gain, ikasleok autonomia erakutsi behar dugu (hausnarketak egitean, argudiatzean, iritzi

akademikoak eta profesionalak ematean, etab.). Azkenik, komunikazio gaitasuna erakustea ezinbestekoa izango da, ahoz nahiz idatziz.

3. MARKO TEORIKOA

3.1. GAITASUN SOZIALAK

3.1.1. KONTZEPTUAREN DEFINIZIOA

Lan honetan zehar gaitasun sozialen (GGSS) inguruan hitz egitean, autore desberdinen definizioak oinarri bezala hartzen direla kontuan hartu behar da. Izan ere, gaur egun oraindik ez dago definizio bateratu bat sozialki trebea den jokaera bat zerk osatzen duen zehazteko.

Meichenbaum-ek, Butler-ek eta Grudson-ek (1981) dioten moduan, Caballok (1997) aipatuta, gaitasun soziala partzialki testuinguruaren menpe dagoenez, ezinezkoa da definizio bakar bat lortzea. Hortaz, Wilkinson-ek eta Canter-ek (1982) diote, Caballok (1997) aipatuta ere, gaitasun soziala testuinguru kultural jakin baten barne haintzat hartu behar dela. Bertan komunikazio ereduak desberdinak izaten dira, bai kultura ezberdinen artean bai kultura berdinen baten barne, faktore desberdinengatik, hala nola adina, sexua, maila soziala edo hezkuntza. Gainera, pertsona baten eraginkortasun-maila egoera bakoitzean lortu nahi duenaren arabera izango da. Hortaz, egoera batean egokia kontsideratu daitekeena, beste batean desegokia izan daiteke. Honez gain, gizabanakoak bere jarrerak, baloreak, sinesmenak, gaitasun kognitiboak eta interakzio estilo bakarra eramaten ditu. Era berean, ez dago jokatzeko modu egoki "unibertsala". Horrela, egoera berdinen baten aurrean, bi gizabanakok modu desberdinetan joka dezakete, edo pertsona berdinek bi modutan egoera berdinen baten aurrean, eta erantzun haiek egokitzen har daitezke (Caballo, 1997).

Hau jakinda, Van Hasselt-en (1979) arabera, Bertrand Russel Psikologia Zentroak (2017) aipatuta, nahiz eta gaitasun sozialen definizio orokor eta bateratu bat ez existitu, hainbat ezaugarri komun onartuta daude:

- Egoera bakoitzeko berezkoak dira, testuinguruak eragina dauka (adibidez: testuinguru jakin batean oso hizlaria den jendea, baina beste batean ez).
- Eraginkortasun interpersonala hitzezko zein hitzik gabeko jokaeren bitartez

aztertzen da.

- Gaitasun sozialak ikasten dira.
- Beste pertsonaren papera garrantzitsua da.
- Eraginkortasun interpersonalak besteei hitzezko minik eta min fisikorik eragin gabe jokatzeko gaitasuna izatea suposatzen du.

Hau guztiaz gain, Bertrand Russel Psikologia Zentroak (2017) beste hainbat aipatzen ditu:

- Ageriko jokaerak dira (interakzio sozialeko harremanetan parte hartzeko gaitasuna, ikasiak dira).
- Helburuetara bideratuta daude (giroarekin lotutako helburuak edo helburu personalak lortzeko bideratuta daude, autoestimuekin eta autoerrefortzuarekin erlazionatuak).
- Gaitasunen osagaiak (jokaerakoak, kognitiboak eta inguruneakoak).

Hortaz, elementu guzti hauen konbinazioak gaitasun sozial onak izatea suposatuko luke. Honez gain, helburuak lortzeko balio duten gaitasunak direla aipatu behar da. Helburu hauek hiru motatakoak izan daitezke. Lehenengoak helburu materialak dira. Honen adibidea alkandora bat bueltatzea izan daiteke, besteak beste. Bigarrena harreman bat hobetzeko edo mantentzeko helburua da. Hirugarrena, eta azkena, autoestimua mantentzeko helburua da eta norberaren esku dago (Kelly, 1987).

Helburu hauen balioa, Linehan-ek (1984) azaltzen duen moduan, Caballok (1997) aipatuta, denboraren, egoeraren eta partaideen arabera aldatzen da. Hau ulertzeko hurrengo adibidea baliagarria izan daiteke: zure lagun batek pelikula jakin bat ikustea lortu nahi duzunean, harremanaren eraginkortasuna (erlazio intimoa mantentzea) helburua (lagun horrek pelikula hori ikustea lortzea) baino garrantzitsuagoa izan daiteke.

Hau guztiaz gain, kontuan hartu behar dugu trebetasun sozialek inguruko agenteengan duten eragina. Arkowitz-ek (1981) esaten duen moduan, Caballok (1997) aipatuta, jokaera interpersonalen ondorioak eta edukiak kontuan hartu behar dira gaitasun sozialen definizio bat ematerako orduan. Izan ere, jendeak egiten duena, baita horrek besteengan eragiten duena ere, ebaluatzea garrantzitsua da. Hortaz, gaitasun sozialak edozein lan interpersonal ongi betetzeko beharrezkoak diren trebetasunak eta jarrerak dira. Horrela, ikasitako eta barneratutako jokabideen multzoa osatzen dute (Bertrand Russel Psikologia Zentroa, 2017).

Beraz, behin hau guztia jakinda, gaitasun sozialak testuinguru interpersonal batean gizabanako batek igortzen duen jokaeren multzoa da. Pertsona horrek sozialki trebea den jokaera bat duela esateko sentimenduak, jarrerak, desioak, iritziak edo eskubideak adierazi behar ditu, betiere egoerara egokituz, besteen jokaerak errespetatuz eta, orokorrean, egoeraren berehalako arazoak konponduz, baita etorkizunean arazoak sortzeko dagoen probabilitatea murriztuz ere (Caballo, 1986; Caballok aipatuta, 1997). Izan ere, Izuzquiza Gasset-ek eta Ruiz Incera-k (2007) esaten duten moduan, gaitasun sozialekin ahalik eta modu egokienean harremantzea ahalbidetzen dute, elkarri on eginez.

3.1.2. GAITASUN SOZIALEKIN LOTUTAKO KONTZEPTUAK

Gaitasun sozialak testuinguru interpersonalean ematen direla kontuan hartuz eta norberak bere sentimenduak, pentsamenduak, iritziak, etab. adierazi behar dituela, betiere besteenak errespetatuz gero, beste hainbat kontzeptu erlazionatu ahal ditugu GGSS-ekin. Kasu honetan, bi desberdinetan sakonduko da: enpatian eta asertibitatean. Izan ere, nahiz eta beste hainbat gaitasun egon, hauek interakzio sozialean berebiziko garrantzia dute eta beste pertsonekin elkarrizketak modu egoki batean izatea ahalbidetzen dute. Hortaz, gela barruan gatazkak sortzekotan, hauen inguruan hitz egiteko eta konponbide bat modu lasai batean aurkitzeko baliagarriak izan daitezke.

3.1.2.1. ENPATIA

Enpatia esperientzia emozionalerako eta interakzio sozialerako oinarrizko osagaia da; izan ere, beste pertsonengan hautematetako, imajinatutako edo inferitutako sentimenduen edota egoera mentalen aurrean erantzun afektibo bat erakusten du. Hau gertatzen da pertsona batek besteen egoera afektiboak imajinatzean edo behatzean berarengan egoera afektibo partekatuak sortzen dituenean; hau da, "besteen azalean" jartzean. Honen bidez, pertsona bat besteekin alderdi afektiboetan komunikatzeko eta haien ekintzak, asmoak eta sentimenduak aurreikusteko gai izango da (Ruggieri, 2013).

Honez gain, Vaello Orts-ek (2005) enpatiak bi gaitasun osagarriak eskatzen dituela dio, transferentzia emozionalean oinarritutakoak:

- a) *Sintonia emozionala*: Besteen egoera emozionalak antzemateko gaitasuna da. Honek suposatzen du norberak bere ikuspuntua aldatzea, ezinbestekoa dena egoera interpersonal agresiboak edo gatazkatuak ekiditeko edo konpontzeko.

Izan ere, normalean posizio oso kontrajarrien arteko ulermena eskatzen dute. Irakaslearen kasuan hainbat ideia birplanteatzea komenigarria da:

- Ikaslea egoera nola ikusten eta ulertzen duen ezagutzea, baita ikaslearen atzean dagoen pertsona nor den jakitea ere, bere jokaeren atzean dauden interesak eta rolak bilatuz eta egiten duena zergatik egiten duen bilatuz. Horrek besteen emozioak detektatzeko eta modu positibo batean maneiatzeko gaitasuna emango dio.
- Ikasleek irakaslearen ikuspuntua ulertzen saiatzea, bere erabakiak eta betebeharrak ulertzeko gai izan daitezen.
- Ikasleekin dituen harremanak aztertzea, egoera ulertzea eta elkarrekin lan egitea arazoak daudenean konponbide bateratu batera iristeko.

b) *Irradiazio emozionala*: Norberak bere egoera emozionalak besteei transmititzeko gaitasuna da. Honen barruan pertsona zailekin eta egoera tirabiratsuetan diplomazia izatea aurkitzen da; hau da, bestearengan emozio positiboak eragitea afektu positiboak modu sinesgarri batean adieraziz.

3.1.2.2. ASERTIBITATEA

Monjas-en (2000) arabera, asertibitatea “gaitasun soziala” kontzeptu zabalaren barnean aurkitzen den beste kontzeptu garrantzitsu bat da. Fensterheim-ek eta Baer-ek (1976) dioten moduan, Monjas-ek (2000) aipatuta, asertibitatea pertsona batek bere sentimenduak zuzenean adierazteko eta bere eskubideak defendatzeko jokaera interpersonala da, betiere besteen eskubideak errespetatuz.

Monjas-ek (2000) harremantzeko “estiloak” aipatzen ditu. Hortaz, hauek ulertzeko, Castanyer-ek (1996) azaltzen du bi pertsona harremantzen direnean, hiru jokaera patroiz desberdin aurkitu ahal direla:

- *Jokaera otzana (sumisoa)*: Horrelako jarrera hartzeak norberaren eskubideen bortxaketa suposatzen du, pertsona horrek ez dituelako zintzotasunez bere sentimenduak, pentsamenduak eta iritziak emango. Gainera, hauek adierazteko modua konfiantzarik gabe izango da, modu ezkor batean eta barkamenekin. Hortaz, besteek pertsona horrek esandakoari kasurik ez egitea erraz izango da, baita haren sentimenduak, pentsamenduak eta iritziak bortxatzea ere, utziko baitie.
- *Jokaera agresiboa*: Norberaren eskubideen defentsa eta pentsamenduen, sentimenduen eta iritzien adierazpena ahalbidetzen duena da, baina modu desegoki batean eta beti beste pertsonaren eskubideak bortxatuz. Izan ere, bestea

umiliatzen eta mespretxatzen du, bere erabakietan sartzen da, etsaitasunez jokatzeko du eta leherkorra eta autoritarioa da.

- *Jokaera asertiboa*: Jokaera hau daukan pertsonak bere sentimenduak, beharrak, eskubideak, interesak eta iritziak adierazten ditu besteak mehatxatu edo zigortu gabe eta haien eskubideak bortxatu gabe. Hortaz, jokaera asertiboa duenak erabakiak hartzen ditu eta bere eskubideak eta besteenak babesten ditu. Gainera, bere helburuak besteak zauritu gabe lortzen ditu, sozialki eta emozionalki adierazkorra da, bere buruarekin gustura dago eta bere buruarengan konfiantza dauka. Hortaz, jokabide asertiboaren asmoa ez da subjektuak nahi duena lortzea, baizik eta argi eta zuzen hau adieraztea.

Hau guztia esanda, Castanyer-ek (1996) argi uzten du ez daudela pertsona "puru"-rik. Hau da, inor ez da guztiz agresiboa edo guztiz sumisoa, ezta guztiz asertiboa ere. Pertsonak haietako jarreraren bat besteak baino nabarmenagoa dute. Hortaz, batzuetan estilo bat izango dute eta bestetan, berriz, beste bat. Hau hizketakideen ezaugarrien eta interesen arabera aldatuko da.

3.2. GAITASUN SOZIALAK HAURTZAROAN

3.2.1. KONPETENTZIA SOZIALA HAURTZAROAN ETA HAREN LORPENA

Garapen sozialaren inguruan hitz egiten denean, gizabanakoak bere testuinguruak eskatzen duenari egokitzeko behar dituen jarrerazko gaitasun multzoari egiten zaio erreferentzia, hau zer mailara arte garatu duenari hain zuzen ere. Gaitasun hauen artean autonomiarekin eta independentzia pertsonalarekin erlazionatuta dauden guztiak aurkitzen dira, baita harreman interpersonalekin daudenak ere (Monjas, 2000). Honez gain, D'Zurillak (1993) dioten moduan, Pérez-ek (2000) aipatuta, konpetentzia soziala gaitasun sozial, jarrerazko konpetentzia eta enfrentamendu jarrera desberdinen tarte zabal bat bezala ulertzen da ere. Hauek pertsonen haien egunerokotasunean aurkitzen dituzten arazoei edo eskaerei modu eraginkor batean erantzuteko gaitasuna ematen diete.

López-ek (1995) dioten moduan, Monjas-ek (2000) aipatuta, garapen soziala eredu esplikatibo elkarreragile batetik ulertzen da non biologia eta kultura faktore aktiboak diren eta elkarri eragiten dioten. Horren emaitza pertsona bakoitzean bertsio bakarra eta desberdina da. Izan ere, López-en eta Fuentes-en (1994) arabera, Monjas-ek (2000) aipatuta ere, gizakia soziala da eta bere oinarrizko beharrak besteekin

harremantzen asetzen ditu. Behar hauen artean lotura afektibo eta sozialak (hala nola atxikimendua, adiskidetasuna edo maitemina) aurkitzen dira. Hauek psikologikoki bakarrik edo abandonatuta ez sentitzeko eraikitzen ditu, seguru eta lagunduta sentitu nahi duelako. Gainera, konpetentzia sozialak berebiziko garrantzia du pertsonaren garapenean, orainaldiko momentuan zein etorkizunean. Izan ere, Vallés-ek (1996) dioen moduan, haurtzaroan konpetentzia sozial on bat izatea helduaroan funtzionamendu sozial egokia izateko ziurtasuna da.

Konpetentzia interpertsonalaren garapen prozesuan, batez ere hasierako urtetan, familiak eta atxikimenduzko lehenengo irudiek berebiziko garrantzia dute. Echeburúa-k (1993) azaltzen duen moduan, Monjas-ek (2000) aipatuta, gurasoek egiten duten estimulazio sozialak umeen trebetasun sozialarekin harreman zuzena dauka. Izan ere, egoera sozial berriei eta desberdinei aurre egin behar izateak gaitasun sozialak barneratzea errazten du. Alderantziz, herabeak edo oso lagunartekoak ez diren gurasoek egoera sozialetan haien buruak eta haien seme-alabak azaltzea saihesten dute. Modu horretan, ez dituzte gaitasun sozialak guztiz ezagutuko eta garatuko, bakarrik inhibiziokoak eta ekiditekoak. Honez gain, umeak haztean garrantzia handia izango duten eredu esanguratsuak agertzen joango dira haien bizitzetan, hala nola haien ikaskideak eta irakasleak.

Hau esanda, argi dago ikaskuntza prozesu honetan bi aldagai garrantzitsu daudela: norberaren jarrera eta besteen jarrera. Hauek kontuan hartuz, Álvarez-ek (1990) Ikaskuntza Legeak zehazten ditu:

- Sari bat jasotzen duen jokaerak errepikatzeko joera du.
- Saririk jasotzen ez duen jokaera desagertzen da.
- Jokaera asko behaketaren bidez ikasten dira, beste pertsonak egiten dutena ikusiz.
- Batzuetan ondorio negatiboak jasotzen dituzte jokaerak. Hori dela eta, desagertu ohi dira.

Konpetentzia sozialaren garapenarekin jarraituz, Monjas-ek (2000) sozializazio prozesuaren bitartez garatzen eta ikasten dela azaltzen du Hau da, beste pertsonekin izandako interakzioaren bidez. Hortaz, lau mekanismo desberdin azaltzen ditu:

- a) *Esperientzia zuzena bidezko ikasketa*: Jokaera interpertsonalak portaera sozial bakoitzaren ondorioen menpe (indartzailea edo higuingarria) daude.

Hortaz, ume batek bere aitari irribarre egitean honek bera saritzen duela sentitzen badu, jokaera hau errepikatu egingo da eta, azkenean, umearen jokabideen erreperitorioan aurkituko da. Bestalde, aitak bere jokaerari ez ikusiarena egiten badio, hau desagertuko da. Baina aitaren partetik zigor bat jasotzekotan (oihu egitea, adibidez), jokaera desagertzeaz gain antsietatez beteriko erantzun baldintzatuak agertuko dira, jokaera berriak ikasteen eragina izango dutenak.

- b) *Behaketa bidezko ikasketa*: Umeak jokabideak ikasten ditu berarentzat esanguratsuak diren ereduekin egoteagatik. Izan ere, ikasketa sozialaren teoriak dio portaera asko beste pertsonak behatzean ikasten direla. Honen adibidea izan daiteke ume batek bere ahizpa oihu egiteagatik zigortzen dutela ikusten duenean, hori egin behar ez duela ikasiko baitu. Bestalde, bere ikaskide batek beste haur bati laguntzeagatik irakaslearen zorionekoa jasotzen duela ikustean, umeak jokaera hori kopiatzeko ahaleginak egingo ditu. Kontuan hartu behar da garapen guztian zehar umeek eredu oso desberdinak izaten dituztela, hala nola anai-arrebak, lehengusuak, auzokoak, gurasoak, irakasleak eta helduak orokorrean. Honez gain, ezin da ahaztu eredu sinbolikoek daukaten garrantzia, batez ere telebista, indar handia dute eta.
- c) *Instrukzio bidezko edo hitzezko ikasketa*: Gizabanakoak berari esaten zaionaren bidez ikasten du. Hortaz, ez da ikasketa modu zuzena, zeharkakoa baizik. Familia giroan heziketa hau informala da, baina eskola esparruan sistematikoa eta zuzena izan ohi da. Ikasketa modu honen adibidea izan daiteke umei gauzak “mesedez” erabiliz eskatzen direla esaten zaienean edo lagun batekin arazoak izatean hauek konpontzeko jarraitu behar dituzten pausoak azaltzen zaizkienean.
- d) *Feedback interpertsonala bidezko ikasketa*: *Feedback* interpertsonala gure portaeraren behatzaileak izan direnek ematen duten erantzuna da; hau da, hau nolakoa izan den esplizitatzen dute eta haien erreakzioa gure jokabidearen aurrean zein den komunikatzen digute. Hau oso lagungarria da portaera desegokiak zuzentzerako orduan. Adibidez, lagun batekin hitz egitean ahoa irekitzen badu aspertzen ari dela interpretatuko du hitz egiten duen pertsonak eta bere jokaera aldatuko du. Hortaz, horrela ulertuta, *feedback*-a errefortzu soziala bezala ulertu ahal da, interakzioaren bitartean beste pertsonak kudeatzen duena.

3.2.2. ARAZOAK HARREMAN INTERPERTSONALETAN

Nahiz eta ikerketa epidemiologiko ziurrak ez existitu haurtzaroan egon daitekeen gaitasun sozial ezaren inguruan, umeen %5 eta %25 artean zailtasunak ditu harreman interpertsonaletan eta haien harremanak defizitarioak edo desegokiak dira. Horren ondorioz, beste pertsonekin interakzioa izatean gaizki pasatzen dute edo beste pertsoneri sufrimendua eragiten diete haien harremanekin. Hortaz, ume asko ez dira haien berdinegatik onartuak izaten eta, askotan, baztertuta daude (Newcomb, Bukowski y Pattee, 1993; Monjas-en, 2000).

Honez gain, arazo interpertsonalak bi ardatzen inguruan aurkitzen direla esaten da. Alde batetik, gehiegikeria soziala versus defizit soziala dago; beste aldetik, ordea, lorpen arazoak versus gauzatze arazoak (Asendorpf, 1993, Bilbert eta Connolly, 1995, Gresham, 1988, Gresham eta Elliot, 1984, Jiménez, 1995, Rubin eta Asendorpf, 1993; Monjas-ek aipatuta, 2000).

Harreman interpertsonalen arazoaren barnean bi mutur aurki ditzakegu, ume herabeak eta ume agresiboak. Hortaz, alde batetik bere adineko umeekin oso gutxi harremantzen diren umeak daude, nahikoak ez diren harremanak dituztenak. Gainera, haien jokaera harreman interpertsonalen faltagatik bereizten da, baita beste pertsonekin kontaktu soziala izaterako orduan daukaten ihesagatik edo saihesteagatik. Beste aldetik, berriz, bere adineko haurrekin harremana mantentzen duten umeak daude, baina hauek desegokiak dira, biolentziaz eta zapalkuntzaz beteta daude eta. Aldi berean, bi biolentzia mota bereizten dira: zuzena eta esplizitua edo inplizitua (Cerezo, 1997, Olweus, 1993, Ortega, 1994; Monjasek aipatuta, 2000).

Haurtzaroan ematen den gaitasun sozial eza, bi eredu esplikatzaile desberdin aurkitzen dira: defizitaren eredia eta interferentziaren eredia (Gresham, 1988, Monjasek aipatuta, 2000).

Gaitasunaren defizitaren ereduaren edo jokaerako errepertorioaren defizitaren ereduaren arabera, kompetentzia sozialaren inguruko arazoak gizabanakoak bere errepertorioan egoera interpertsonal jakin batean modu egoki batean jokatzeko beharrezkoak diren jokabideak eta gaitasunak ez dituelako gertatzen dira; pertsona horrek ez daki ondo jokatzeko inoiz ikasi ez duelako. Hala ere, testuinguru zehatz batean nola jokatu behar duen ez jakitea ere gerta daiteke. Subjektuak gaitasun sozial haiek ez

izateko hainbat arrazoi egon daitezke, hala nola eredu egokiak ezagutu ez izatea, estimulazio eta ikasketa aukera falta edo errefortzu on bat ez izatea (Monjas, 2000).

Ume herabeen hainbat ezaugarri

- > Gainerako umeekin eta helduekin harremantzea saihesten dute, batez ere ezezagunak badira, eta harremantzen direnean urduritasuna eta antsietatea adierazten dute. Gainera, burua jaisten dute eta gorritzen dira.
- > Inor ohartu gabe egon nahi du, besteek berari galderak ez egiteko eta haiekin hitz egin behar ez izateko.
- > Kontaktu fisikoa ekiditen dute, haien ikaskideena edo helduena.
- > Gela batean jendea bilduta badago, asko kostatuko zaie sartzea.
- > Elkarrizketetan eta talde lanetan inhibitzen dira eta parte hartzen dutenean oso baxu hitz egiten duten, ahotsak dardaratzen die eta oso urduri egoten dira (eskuekin edo hurbil dauden objektuekin jolasten).
- > Oso lagun gutxi dituzte, ikaskide batekin harremana izatea gustatzen zaie, agian birekin, baina ume gehiago daudenean ihes egiten dute.
- > Bakarrik egotea eta jolastea gustatzen zaie, bai gelan bai patioan, eta objektuen batekin jolasten dute (baloi batekin, liburuekin animaliekin...).
- > Klasera joaten ez denean bere ikaskideek ez dute haren falta nabaritzen.
- > Agurtzea kostatzen zaie, baita hauei eta galderei erantzutea ere.
- > Elkarrizketa bat hastea edo norbaiti zerbait eskatzea zaila da haientzat.
- > Barnerakoiak eta isilak dira, ez dute haien bizitzen inguruan hitz egiten.
- > Oso pasiboak dira eta ematen du ez zaiela ezer interesatzen, ez baitituzte haien interesak adierazten.
- > Oso autoestimu baxua dute, dudatsoak dira eta gutxiagotasun sentimenduak dituzte.
- > Ez zaie asko gustatzen etxetik ateratzea.
- > Haien gurasoekin oso autoritarioak eta zorrotzak dira.

Iturria: Monjas (2000, 30. orr)

Interferentziaren hipotesiari dagokionez, gauzatze defizita ere deitua, bertan eredu esplikatibo desberdinak elkartzen direla esan behar da. Guztiek diote subjektuak gaitasun jakin batzuk dituela, edo izan ahal dituela, baina faktore emozionalak, kognitiboak edota motorrak direla eta, ez dituela martxan jartzen.

Ume agresiboen hainbat ezaugarri

- › Agresibitate zuzena eta esplizituarekin:
 - › Oso jokaera borrokalaria eta oldartsua izaten dute.
 - › Eraso fisikoak nahi dutena lortzeko erabiltzen dituzte.
 - › Besteak gogaitzen dituzte haien arreta lortzeko (ukituz, mehatxatuz edo irainduz).
 - › Hitzen eta keinuen bidez mehatxatzen eta iraintzen dute.
 - › Haien ikaskideek beldur diete eta ez dituzte ondo onartzen.
 - › Besteen gauzak ez dituzte errespetatzen, berdina zaie apurtzen edo galtzen badira.
 - › Zigorrek ez dute inolako eragina haiengan.
- › Agresibitate implizituarekin:
 - › Ume lasai eta pentsakorrak dira.
 - › Lanetan eta jolasetan agindu behar dute eta, horretarako, haien inguruan menderatu ahal dituzten umeak egoten dira.
 - › Besteen eskubideak bortxatzen dituzte, haiek nahi dutena egin behar da.
 - › Besteak mehatxatzen, beldurtzen eta gutxien dituzte hitzekin eta haien mespretxuzko jarrerarekin.
 - › Oso menderatzaileak dira, haien ikaskideak umiliatzen eta mespretxatzen dituzte.
 - › Zigorrek ez dute inolako eragina haiengan.
 - › Haien begiradekin eta jarrerekin helduak desafiatzen dituzte errieta botatzen dietenean.

Iturria: Monjas (2000, 31. orr)

Gainera, Monjas-ek (2000) gaitasun sozialen bereganatze edo gauzatze prozesuan eragina duten faktoreen artean hainbat desberdin nabarmentzen ditu: pentsamendu depresiboak, arazoak konpontzeko gaitasun eza, besteen lekuan jartzeko gaitasun desegokiak, antsietatea, beldurra, portaera agresiboa, sinesmen irrazionalak (esajerazioak, adibidez), itxaropen negatiboak, defendatzeko gaitasun eza eta pentsamendu frustragarriak.

Hau guztiaz gain, eta harreman interpersoneletan egon daitezkeen arazo desberdinen eruedetara bueltatuz, Bertrand Russel Psikologia Zentroak (2017) lau desberdin aipatzen ditu, Monjasek aipatzen dituen biak barne hartuz. Lehenengoa jokaerako gaitasun sozialen defizita da. Kasu horretan oinarrizko gaitasun sozial edo asertiboak ez daude gizabanakoaren erantzunen erreperitorioan. Honen arrazoiak isolamendua edo muga kulturalak izan daitezke, besteak beste, eta GGSS-ak entrenatzea beharrezkoa izango litzateke. Bigarrena erantzunaren inhibizioaren erueda da. Honetan gizabanakoak oinarrizko gaitasun sozialak baditu, baina inhibituta daude baldintzatutako antsietateagatik edo sinesmenengatik. Jarraitzeko, hirugarrenak diskriminazioan akatsak egiteari egiten dio erreferentzia eta pertsonak oinarrizko gaitasun sozialak dituela esan nahi du, baina erantzun asertibo egoki eta eraginkor bat lortzeko beharrezkoa den diskriminazioa ez du ondo egiten. Honen adibidea izan daiteke besteek bera etengabe gortetzen dutela sinesten duen pertsona, gainerakoien seinaleak diskriminatzen ez baititu. Laugarrena, eta azkena, arrazoizko hautaketaren erueda da. Kasu honetan, gizabanakoak (bere ustez) asertiboa ez izatea aukeratzeko arrazoiak ditu.

3.3. GAITASUN SOZIALAK ESKOLA TESTUINGURUAN

3.3.1. GAITASUN SOZIALAK HEZKUNTZA CURRICULUMEAN

Gaur egun, Lehen Hezkuntzarako Estatu mailan 8/2013 Lege Organikoa dago, abenduaren 9koa, hezkuntzaren kalitatea hobetzeko. Bertan, 16. artikulua 2. paragrafoan hurrengo ideia agertzen da: «2. *Lehen Hezkuntzaren helburua ikasleei honako hauek irakastea da: ahozko adierazpena eta ulermena, irakurketa, idazketa, kalkulua, kulturaren oinarrizko ideiak, elkarrekin bizitzeko ohitura, ikasten eta lan egiten, zentzu artistikoa, eta sormena eta afektibitatea. Horren guztiaren helburua da ikasleen nortasuna garatzen lagunduko duen prestakuntza integrala bermatzea eta haiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari etekina ateratzeko moduan prestatzea.*» Hortaz, hau irakurtzean ikaslearen garapen integrala bilatzen dela uler daiteke.

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoan 236/2015 Dekretua badago, abenduaren 22koa, eta oinarrizko hezkuntzako curriculumak zehazten duena. Honen barruan ez da zehazten gaitasun sozialen garapen espezifikorik eta zuzenik, baina zeharkakoa bai.

Izan ere, oinarrizko zehar kompetentzien barruan elkarbizitzarako kompetentzia aurkitzen da eta horrela dio: «*Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasun-irizpideekin parte hartzea da, gainerako pertsonen aitortuz nor bere*

buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak, eta horrela, ekarpen bat egitea norberaren eta guztion onari.” (21. orr)

Gainera, kompetentzia honen barruan osagai desberdin batzuk aurkitzen dira eta, haien artean, batek berebiziko garrantzia du gaitasun sozialen inguruan hitz egiten denean:

- *“Norberaren eta besteren nahiak asebate daitezten uztartzea komunikazioetan; hau da, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea eta, aldi berean, besteren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak adi entzutea eta kontuan hartzea.” (40. orr).*

Idea honen atzean asertibitatea eta enpatia daude. Izan ere, pertsonen arteko komunikazioa egiazkoa eta aberasgarria izateko bi elementu hauek modu orekatu batean erabiltzea ezinbestekoa dela esaten da. Alde batetik, pertsona asertiboak ahaleginak egiten ditu besteak es manipulatzeko eta manipulatu ez izateko. Gainera, egiazko komunikaziorako eta gatazkak konpontzeko oinarri oso ona da jokabide asertiboa, gertaerak modu argi eta eraikitzaile batean planteatzen baititu. Beste aldetik, berriz, pertsona enpatikoak badaki norbait entzutea prozesua aktiboa dela eta arreta behar dela entzundako mezuaren edukia ulertzeko, baita horren mami emozionala ulertzeko ere. Gainera, asertibitatea eta enpatia konbinatzean, ezberdintasunak onartzeko jarrerak eta gainerako pertsonen balioak, sinesmenak, kultural eta historia pertsonalak onartzeko eta errespetatzeko jarrerak agertuko dira.

Hau esanda, eta oinarrizko zeharkako kompetentzia baten barnean dagoela kontuan hartuz, 236/2015 Dekretuak dio bizitzako esparru eta egoera guztietan arazo-egoerak modu eraginkor baten ebazteko behar den kompetentziatzat hartzen dela, diziplina-arloetan eta eguneroko bizitzako egoeretan. Hori dela eta, ikasgai guztietan egiten den lanarekin sustatu eta indartu behar den kompetentzia da, bizitzako esparru eta egoera guztietan hau integratuz eskuratzen eta erabiltzen dela uste baita.

Hau dela eta, oinarrizko diziplina barneko kompetentzietan, ikus daitezke guztiek eduki komun batzuk partekatzen dituztela. Hortaz, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. zikloetan irakasgai guztietan harremanak eta komunikazioa lantzea pertsonekin (enpatia eta asertibitatea), giza eskubideak eta gizarteko konbentzioak errespetatzea, gatazkak kudeatzea, norberaren emozioak erregulatzea eta norberaren jokabide morala erregulatzea espero da, besteak beste.

Hau esanda, ondorioztatu daiteke gaitasun sozialei garrantzia ematen zaiela curriculumean, baina ez da zuzenean esaten. Hau da, curriculumean zehar ez dira agertzen hauek lantzeko irizpide zuzenak. Gainera, Monjas-ek (2000) dioen moduan, nahiz eta azken urteetan proiektu berriak agertu diren, oraindik ez dago esperientzia handirik gaitasun sozialak entrenatzeko balio duten proiektuekin. Honez gain, Zentroko Hezkuntza Proiektuetan, Zikloko Proiektu Curricularretan askotan ahazten den gaia da gaitasun sozialena.

Hortaz, konpetentzia soziala eta gaitasun sozialak haurtzaroan eta nerabeztaroen, orokorrean, ez dira modu aktibo eta sistematiko batean irakasten eskola testuinguruan. Konpetentzia soziala ahaztuta gelditzen da, eskolak arrakasta akademikoarekin lotutako arlo intelektualei garrantzia ematen jarraitzen dielako, nahiz eta gizartearen balio nagusiak irakatsi behar dituen. Horren ondorioz, ongizate interpersonala eta pertsonala sustatzen duten jokaerak albo batean uzten ditu.

Gauzak horrela, gaitasun sozialen irakaspenera irakasle bakoitzaren menpe gelditzen da, curriculum ezkutuaren parte bilakatuz; hau da, modu inplizitu batean irakasten diren edukien parte. Hortaz, guzti honek gaitasun sozialak ahaztuta dagoen kontua dela pentsatzea suposatzen du (Monjas, 2000).

3.3.2. IRAKASLEAREN PAPERA

Vaello Orts-ek (2005) azaltzen duen moduan, irakaslearen papera umeen ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan oinarritzkoa da. Beraz, ikasleek gaitasun sozialak bereganatzen dituztela bermatzearen, irakasleek hainbat alderdi kontuan hartu behar ditu. Hau aztertzeko, ikasleen eta irakasleen arteko harremanari egingo zaio erreferentzia eta, ondoren, irakasleek garatu ahal dituen estrategia desberdinei. Izan ere, azken hauek beharrezkoak dira gaitasun sozialen ikaskuntza erraztearen.

Ikaslearen eta irakaslearen arteko harremana

Bi hauen artean ematen den interakzioak zentroan ematen diren gainerakoetatik desberdintzen da, ezaugarri jakin batzuk baititu:

- Desberdinen arteko harremanak dira.
- Rol oso bereziak eta osagarriak dituzte, haien arteko harremana zehazten dutenak.

- Harreman formalak dira, protokolo estandarizatueta oinarritzen direnak eta instituzionalki zehazten diren rol ofizialetara eusten dena.
- Berdinen arteko harremanen osagarriak dira eta ikasleek haien ikaskideekin asetu ezin dituzten funtzioak betetzen dituzte.

Hala ere, nahiz eta irakasleen eta ikasleen harremana formala izan, irakasleek harremana moldatzen duten hainbat portaera informal aurrera eramateko aukera dute. Hauek irakasleek haurrengan izango duten eragin soziala zehazten dute, baita haien ikasleekin lotuko dieten empatia maila ere. Hortaz, haien ikasleengan izango duten eragina indartzeko, besteen emozioak detektatzeko eta maneiatzeko dituzten estrategiak ahalik eta hoberen erabili behar dituzte, haien atsekabeaz ohartzeko, haserreak kontrolatzeko, saioak etengabe gelditzea gainditzeko edo testuinguru atseginak, konfiantzazkoak eta ziurrak sortzeko. Hau guztia egoera ulertzeko eta honetara egokitzeko gaitasuna da.

Gaitasun sozialen ikaskuntza eta irakaskuntza ahalbidetzeko estrategia desberdinak

- Ikaslearen behaketa aktiboa

Irakasleek eta ikasleek espazio komun bat partekatzeak ez du esan nahi elkar ezagutzen eta gustuko dutela, bestearengan arretazko jarrera bat izatea beharrezkoa da. Irakaslearen kasuan, bere ikasleak ondo ezagutu behar ditu haiengan eragin positiboa izateko eta haiekin interakzio bat izan ahal izateko. Horretarako, ikasleak aztertu behar ditu eta zer pentsatzen eta sentitzen duten jakin behar du, behaketa aktibo bat eginez, ikasleen lekuan jartzen eta haien ikuspuntua ulertuz. Behaketa horretan ikasleen interesak ezagutzea komenigarria izango litzateke, haien jokaerak azaltzeko oso baliagarriak baitira. Gainera, haien trebeziak zeintzuk diren jakitea ere lagungarria izan daiteke, gela barruan motibazio gisa erabiltzeko eta ikasleen parte hartzea sustatzeko.

Honez gain, irakasleek sortzen diren arazoak konpontzeko modu aktibo batean parte hartu behar dute. Hortaz, guztiek batera lan egin behar dute eta *zer egin dezakezu hau konpontzeko?* galdetu ordez, *zer egin dezakegu?* galdetu behar dute. Horrela, guztiak arazoaren parte izango dira, konponbide bateratu bat lortuko dute, haien arteko harremana hobetuko da eta ikasleek haien jarrera oztopatzailea gaindituko dute.

- Ikasleen empatia indartzea eta sustatzea

Lehen esan bezala, enpatia besteen lekuan jartzeko gaitasuna da. Hortaz, gela barruan giro egokia egotearren, interesgarria izan daiteke hau garatzea. Horretarako, irakasleek estrategia desberdinak dituzte:

- *Elkarrekiko onarpena errazten duten ezaugarriak hautematea*: Gustuko ditugun pertsonak dituzten ezaugarriak aztertzea baliagarria izan daiteke guk ezaugarri haiek gure nortasunean txertatzeko, ahal den neurrian.
- *Iritzi desberdinekiko errespetua eta tolerantzia sustatzea*: Egoera jakin baten aurrean ikuspuntu desberdinak daudela ulertzea, tolerantzia sustatzea eta besteen sentimenduak ulertzea suposatzen du. Hau egin baino lehen, irakasleak ideia aniztasuna errespetatzearen eta onartzearen inguruan hausnartzea komenigarria da, bizikidetzeta eta errespetu elementu gisa.
- *Besteen inguruko pertzepzio deformatuak orekatzea*: Inork ez ditu bakarrik ezaugarri positiboak edo negatiboak, baina pertsonak “onak” edo “txarrak” bezala sailkatzeko joera dago. Honek “halo efektua”-ren eragina du; izan ere, ezaugarri onak gehitzen dizkio gustukoak diren pertsonari eta ezaugarri txarrak gustukoak ez direnei. Guzti honek geure buruak aurreiritzietaz betetzen ditu; hortaz, gure hautemateak ahalik eta objektiboena izateko ahalegina egin behar dugu.
- *Emozio positiboan adierazpena praktikatzea*: Normalean, geletan, bakarrik emozioak modu ireki eta zuzen batean adierazten dira negatiboak direnean eta kontrolik gabe botatzen direnean (haserretzean, adibidez). Emozio positiboak, aldiz, erreprimitzen eta ezkututzen dira eta ez da beharrezkoa ikusten hauek adieraztea. Hala ere, emozio positiboak adierazteak emozio negatiboak agertzearen probabilitatea murrizten du; beraz, hauen adierazpenean lan egitea komenigarria da. Izan ere, emozio positiboak sentitzean eta adieraztean okupatutako denbora emozio negatiboak sentitzera kentzen zaiona da.
- *Gure mezua entzulearengan izango dituen ondorioak aurreikustea*: Mezu bakoitzak eragin bat dauka entzuleengan, batzuetan positiboa eta bestetan negatiboa, nahiz eta kontziente edo inkontzienteki izan. Ondorio desatseginak saihesteko, besteen lekuan ipintzeko beharra dago, mezua nola eragingo dion jakiteko.
- *Komunikazio estiloa ezagutzea eta hobetzea*: Mezu jain batzuek inplizituki errefusa eragiten dute, edo behintzat, onarpen falta. Gainera, eragin

nahi diren ondorio positiboak lortu ordez, kontrakoak izaten dira. Hortaz, hauek lantzea garrantzitsua da.

- *Pentsamendu jarraibide batzuk ikastea emozioekin eta harreman interpersonalekin lotutako esaldien ulermenaren eta interpretazioaren bidez:* Esaldi batzuk hitz gutxirekin ideia oso onak adierazten dituzte, erraz gogoratzen direnak eta egoera desberdinetan oso erabilgarriak direnak. Mundu sozioemozionalari buruzko esaldi batzuen komentario eta interpretazio kolektiboa egiteak ikasleen buruetan esaldi haiek betiko gogoan geratzen laguntzen du.
- *Guztion artean ardurak banatzea, lehenengo pertsonan, bigarren pertsonan edo pluralean azaldutako mezuak orekatuz:* Irakasleak gelan gertatzen dena aztertzean, “zu” erabiltzen du normalean. Modu horretan, gertatzen diren gauza txar guztien ardura ikaslearena da. Hortaz, komenigarria da horretako mezu batzuk “ni” esanez adieraztea (ikaslearengan ardura jartzen duena) edo, bereziki, “gu” erabiltzea (ikaslearengan eta irakaslearengan konponbide bat bilatzearen ardura uzten duena).
- Asertibitatea gelan komunikatzeko oinarritzko modua izatea

Lehen aipatu da asertibitatearen garrantzia komunikatzerako orduan. Hori dela eta, irakasleak hau bere gelan sustatzeko eta garatzeko ahaleginak egin behar ditu. Izan ere, irakasleak bere eskubideak defendatzea lortu behar du; baina, aldi berean, ikasleak bereak defendatzea lortu behar du. Horretarako, irakasleak berak dituen jokaera agresiboak eta “pasiboak” zuzendu behar ditu, baita umeenak ere. Erantzun asertiboak sorrarazten dituen jokaera bat kritikak kudeatzea da. Honetan, bi aspektu kontuan hartu behar dira. Alde batetik, kritiken adierazpena; eta, beste aldetik, justifikatutako kritiken onarpena eta kritika funsgabeen gezurtapena.

- Kritiken adierazpena

Kritika batek eraikitzailea izateko hainbat baldintza bete behar ditu, bestela norbaiti zerbait aurpegiratzea izango da eta horren emaitza entzulea mintzea izango da, baita defentsiban jartzea ere:

- Datu behagarrietan oinarritzea.
- Bestearen jarrerak eragiten dituen sentimendu pertsonalak adieraztea.

- Alternatibak ematea.
- Arreta eta kritikaren onarpena eskertzea.
- Besteen kritikei aurre egitea.

Honen barruan desegokiak diren kritikak errefusatzeko eta egokiak direnak onartzeko estrategiak aurkitzen dira. Kritikak gure autoestimua kontrako eraso pertsonalak bezala hartzen direnean, erantzun agresiboa, errefusa edo ezeztapena agertzen dira. Kritiken kudeaketa egokia egiteak, berriz, norberaren akatsen inguruko hausnarketa bultzatzen du. Horretarako, oso garrantzitsua da kritika eraikitzaileen eta funsgabekoen artean desberdintzen jakitea. Hortaz, hainbat irizpide kontuan hartu behar dira:

- Kritikaren zentzua *ulertzen* saiatu eta kritikaturako jokaeran zentratu, egon daitezkeen manipulazioak eta distortsioak alde batera utziz eta arrazoizko aspektuak banatuz.
- Bestea eten gabe *hitz egiten utzi*, kontraerasotu gabe eta erantzun oldartsuak eman gabe.
- Kritika zentzuzkoa dela *onartu* (horrela denean), horrelako jokaera izatearen arrazoiak emanez, baina inoiz ez justifikatuz.
- Kritika bakarrik neurri batean egokia irudituz gero, *zehaztu* zein aspektutan bat egiten den eta zeinetan ez.
- Kritikarekin batere ados ez egotekotan, horrela adierazi *arrazoiak emanez*, baina besteek horrela pentsatzeko eskubidea dutela errespetatuz.
- *Barkamena eskatu* beharrezkoa izatekotan.
- Momentu horretatik aurrera zer aldatuko den *azaldu*.
- Beste pertsonak azalpenak nola jasotzen dituen jakin. Kritikaren zein aspektu formal deserosoa izan den *adierazi* eta etorkizun batean aldatzea eskatu, baina akusazioetan sartu gabe.
- Adierazitakoarekin modu koherente batean *jokatzea*.

3.3.3. GAITASUN SOZIALAK EBALUATZEKO TRESNAK

Caballok (1997) azaltzen duen moduan, gaitasun sozialen ebaluazioa oso gai gatazkatsua da, nahiz eta etengabe hauek ebaluatzeko tresna berriak agertu, oraindik ez dago hau egiteko modu bateratu bat. Dagoen gatazka noraino iristen den ulertzeko, Caballok (1997) Curran-ek (1979) duen izenburu esanguratsu bat aipatzen du: *Pandora kutxa berriro ireki al da? Gaitasun sozialen ebaluazioa*. Arazo honen arrazoia sozialki trebea den jokaera bat zein den zehaztuta ez egotea da eta, gainera, ez dago ebaluazio prozesuak balioztatzen duen kanpoko irizpiderik.

Hala ere, egoki balioztatutako instrumenturik ez egon arren, gaitasun sozialak ebaluatzeko jokaerako terapia desberdinetan erabiltzen direnak izan dira. Hortaz, lau fase desberdinetan egiten da ebaluazioa: 1. tratamendua baino lehen; 2. tratamenduan zehar; 3. tratamendua eta gero, eta 4. jarraipen denboraldian.

Hala ere, hezkuntza arloan ez dira horrelakoak egiten. Hortaz, Bertrand Russell Psikologia Zentroak (2017) aztertu ahal diren alor desberdinak azaltzen ditu:

- Egoera interpertsonal gatazkatsuekin erlazionatutako pentsamenduak.
- Egoera interpertsonal gatazkatsuekin lotutako emozioak (antsietatea, amorrua, lotsa...).
- Erantzun motak dimentsio guztietan (jokaerakoak eta ingurukoak).
- Beste egoera batzuetan pertsona batek izan dituen joakerengatik, harengandik zer espero den.
- Pertsona batek bere gaitasun sozialen inguruan duen pertzepzioaren araberako autokontzeptua ("arraroa naiz", adibidez).
- Erlazionatuta egon daitezkeen beste zailtasun edo arazoak.

Guzti hau aztertzeke, hainbat instrumentu zehazten dira ere. Lehenengoa arazo egoera guztien analisi funtzionala da. Horretarako 5 zutabe betetzea komenigarria da: data eta ordua; egoera; antsietatea, pentsamenduak eta jokaerak; besteen jokaera eta emaitzarekin duen poztasuna. Horrela, pertsona horrek aurkeztutako jokaera guztien dimentsioak eta zer egunetan gertatu zen erregistratuta gelditzen da. Bigarrena, behaketa zuzena da. Hau role playing-etan eta egoera arruntetan egin behar da. Modu horretan pertsona horrek izandako antsietatea, pentsamenduak eta jokaerak aztertuko dira egoera hasi baino lehen, egoeran zehar eta behin guztia amaitu denean.

Hau guztiaz gain, Caballok 1987. urtean adierazpen sozialaren eskala multidimentsionala aurkeztu zuen, atal kognitiboa aztertzeko. Horrela, bertan agertzen diren 44 itemen bidez gaitasun sozialen inguruko pentsamendu negatiboen maiztasuna neurtzen dira. Hau zaila izan daiteke umeekin egiteko, baina egokitzapen on batekin tresna oso interesgarria izan daiteke. Honez gain, kontsultatu daitezkeen beste hainbat galdetegi daude:

AUTOREA ETA URTEA	GALDETEGIA
Rathus, 1973	<i>Inventario de Asertividad</i>
Grambill eta Richey, 1975	<i>Inventario de Asertividad</i>
Glass et. al., 1962	<i>Inventarui de Automanifestaciones en la Interacción Social</i>
Watson eta Friend, 1969	<i>Escala de Evitación Social y de Incomodidad</i>
Richardson eta Tasto, 1977	Inventario de Ansiedad Social
Besai, 1977	<i>Cuestionario de Creencias Comunes LCC</i>

3.4. GAITASUN SOZIALAK LANTZEKO PROGRAMAK

Gaitasun sozialen entrenamendua (GSE) gizabanakoei estrategia eta gaitasun interpersonalak erakusteko saiakera zuzena eta sistematikoa da, egoera sozial jakinen aurrean haien konpetentzia interpersonala hobetzearren (Curran, 1985; Caballo, 1997). Normalean, gaitasun sozialen entrenamendua erantzuna bereganatzearen jarrerazko ikuspuntu batean oinarritzen da; hau da, erantzun multzo baten ikaskuntzan oinarritzen da normalean (Caballo, 1997).

Monjas-ek (2000) dioenez, azken urteetan konpetentzia sozialaren barruan, gaitasun sozialen entrenamendua interes handiko gaia bihurtu da. Hori dela eta, garapen oso nabarmena egon da arlo horretan eta ia interbentzio psikologiko guztiek entrenatzeko edo jokaera interpersonalararen aldatzeko balio duen osagai bat ezkututzen dute. Umeei dagokienez, gero eta aurrerapen handiagoak daude gai honetan. Izan ere, jokaera oso desegokiak zituzten umeekin lan egiteaz gain, gaur egun “arazorik gabeko” umeekin ere lan egiten da, prebentzio moduan.

Hala ere, gaitasun sozialen entrenamendua jokaerako arazoak dituzten umeekin egiten jarraitzen da. Aplikazio nagusiak egiten dira haien berdinentatik errefusatuak izan

diren umeekin, jokaerazko gehiegikeria duten umeekin (portaera agresiboa, hiperaktiboak, etab.), baztertuak daudenekin (Rubin eta Asendorpf, 1993; Monjas-ek aipatuta, 2000), behar bereziak dituztenekin, tratu txarrak jasan dituzten umeekin... (Monjas, 2000).

Gaur egun, eta denboran zehar umeekin egindako entrenamenduak eta gero, gaitasun sozialen entrenamenduak interbentzio esparru berri batera iritsi dira: eskolara. Horri esker, ume guztiek testuinguru errealetan haien gaitasun sozialak garatzeko aukera izango dute, haien konpetentzia soziala garatuz eta arazo batzuen prebentzio lana eginez. Hortaz, gaitasun sozialen irakaskuntza ematen hasi da.

Adibide moduan, hauek dira herrialdeko eskoletan aurrera eramaten ari diren programa batzuk:

HAURTZAROAN EDOTA NERABEZAROAN GAITASUN SOZIALAK ENTRENATZEKO BALIO DUTEN PROGRAMEN ADIBIDEAK	
Autorea eta data	Programa
Álvarez, Álvarez-Pillado, Cañas, Jiménez, Ramírez y Petit, 1990	Interakzio sozialeko gaitasunak
Arón y Milicic, 1996	Besteekin bizitzea
García y Magaz, 1997	Irtenbide kognitiboen irakaskuntza arazo interpersonalak saihesteko
Goldstein, Sprafkin, Gershaw y Klein, 1983	Ikaskuntza egituratua
Michelson, Sugai, Wood y Kazdin, 1987	Gaitasun sozialen irakaskuntzarako programa
Monjas, 1993, 1999	Interakzio sozialeko gaitasunen irakaskuntzarako programa

Trianes,1996	Hezkuntza sozialaren eta afektiboaren programa
Verdugo, 1997	Gaitasun sozialen programa

Iturria: Monjas (2000, 34. orr.)

Curran-en (1985) arabera, Caballok (1997) aipatuta, hainbat ideia daude gaitasun sozialen entrenamenduen atzean:

- Erlazio interpertsonalak garapen eta funtzionamendu psikologikorako garrantzitsuak dira.
- Armonia interpertsonalaren falta disfuntzio psikologikoak eragin ditzake.
- Estilo eta estrategia interpertsonal jakin batzuk beste hainbat baino moldagarriagoak dira topagune sozial zehatz batzuentzat.
- Estilo eta estrategia interpertsonal haiek irakatsi ahal dira.
- Behin estilo eta estrategia haiek ikasita, konpetentzia egoera jakin batzuetan hobetuko dute.
- Konpetentzia interpertsonala hobetzeak funtzionamendu psikologikoaren hobekuntza ere suposatu ahal du.

Hau esanda, interesgarria izan daiteke gizabanako batek jokaera desegokia izateko arrazoiak aztertzea. Izan ere, Caballok (1997) hori gertatzeko hainbat faktore daudela dio:

- Gizabanakoak bere *errepertorioan* egokiak diren *erantzunik* ez izatea.
- Subjektuak *baldintzatutako antsietatea* dauka, erantzun sozial trebea erakustea oztopatzen duena.
- Gizabanakoak bere jokaera soziala txarto ikusten du eta bere burua *modu negatibo batean autoebaluatzen* du.
- Egoera jakin batean ondo jokatzeko *motibazio falta* izatea.
- Subjektuak ez daki *diskriminatzen* egoera baten aurrean erantzun jakin bat egokia den edo ez.
- Gizabanakoa ez dago bere *eskubideetaz* seguru edo ez du uste modu egoki batean erantzuteko eskubidea duenik.

- Gizabanakoaren inguruan *objektu murriztaileak* egotea, berak egoki adieraztea oztopatzen dutenak edo jokaera egoki bat aurkeztea zigortzen dutenak.

Guzti honi aurre egiteko, Monjas-ek (2000) gaitasun sozialak entrenatzeko proposatutako programan pauso desberdinak azaltzen ditu:

1. *Hitzezko formakuntza, elkarrizketarako eta eztabaidarako*: Gaitasunaren jokaerazko osagaiak identifikatzeko eta hurrengo galderei erantzutea: zer egin, non, noiz, zergatik, zertarako eta norekin. Guztia landu nahi den gaitasun bakoitzarekin.
2. *Modelaketa*: Ikasiko diren gaitasun desberdinen ereduak errepresentatzen dituzte trebetasun sozialak dituzten ikasleek eta irakasleak. Gainerakoek, antzezpena ikusten dute.
3. *Praktika*: Norberak bere jokaeren erreperetoria landutako gaitasunak eta portaerak gehitzeko, hauek praktikatu eta entseatu behar ditu. Ariketa hau funtzionatzeko bi modutan egin behar da: egoera simulatuetan (Role-Playing-aren edo dramatizazioaren bidez) eta egoera naturaletan eta egunerokotasunean murgilduta.
4. *Feedback-a eta errefortzua*: Umeek role-playing-aren bidez egindako praktikak eta entseguak amaitzean, irakasleak eta gainerako umeek esango diete nola egingo duten eta errefortzua emango diete.
5. *Zereginak*: Ikaslegoari lantzen ari dituzten gaitasunak gelatik eta eskolatik kanpo praktikan jartzea eskatzean datza, irakaslearen argibideekin, baita haren geroagoko gainbegiradarekin ere.

4. HELBURUA

Lan honen helburua gaitasun sozialen (enpatia eta asertibitatea) garatzeko programa bat diseinatzea da, Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko gela batean aurrera eramateko.

5. PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

5.1. TESTUINGURUA

Gaitasun sozialak lantzeko baliagarria den proposamen didaktiko hau Gasteizko ikastetxe publiko baten gela batean aurrera eramateko pentsatuta dago; Angel Ganivet-Santa Luzian, hain zuzen ere. Santa Luzia auzoan aurkitzen da eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako espezialitateak eskaintzen dira. Bertan, irakaskuntza euskaraz egiten da, D ereduan, eta 80 profesional inguru daude (hezitzaileak, zuzendaritza-taldea, jantokiko arduradunak, etab. kontuan hartuz) (Angel Ganivet-Santa Luzia ikastetxea, 2019a).

Eskola publikoa denez, doakoa eta ikasle guztientzat irekia da. Honez gain, hezkuntza-komunitate osoaren partaidetza bultzatzen du eta laikoa da. Hortaz, ikastetxean aurki daitezkeen erlijio guztiak errespetatzen dira eta ez dira inoiz norbait diskriminatzeko arrazoi bat izango. Eskola euskalduna da ere. Hori dela eta, euskararen erabilera eta euskal kultura bultzatzen dira. Gainera, eskola inklusiboa izateko lan egiten dute bertako kideek eta berdintasuna bermatzen saiatzen dira (Angel Ganivet-Santa Luzia ikastetxea, 2019b). Beraz, ikasleen harremanak berdintasun oinarri batean sustatzearen, hezkuntza ez sexistaren hautua egiten da. Honen helburua berdintasunean oinarritutako sozializazioa ziurtatzea da, nesken eta mutilen garapen pertsonala haien identitate propioaren eraikuntza prozesuan ahalbidetuz (Angel Ganivet-Santa Luzia ikastetxea, 2019a). Hau guztiaz gain, eskolak bizikidetzat bultzatzen du. Horretarako, adiskidetasuna eta elkartasuna lantzen ditu, umeei elkar errespetatzeko eta haien autonomia garatzeko (Angel Ganivet-Santa Luzia ikastetxea, 2019b).

Ikastetxean, guztira, 686 ikasle daude eta hiru lerrotan banatzen dira, maila bakoitzeko hiru talde sortuz. Familiei dagokienez, azken urtetan atzerritarren ehunekoak ikasturtez ikasturte handitzen joan doala ikusten da. Hortaz, nahiz eta ikasle gehienak Gasteizen jaio izan, gurasoen %80ak jatorri kanpotarra du (Sahara, Argelia, Dominikar Errepublikak, Nikaragua, Moldavia, etab.). Orokorrean, errenta baxuko familia asko daude. Hori dela eta, 417 ikasleek diru-laguntzaren bat jasotzen dute. Umeen ama hizkuntzei erreparatuz, esan behar da eskolan euskararen erabilera bultzatzen dela, nahiz eta arabiera, wolof, urdu eta amazigera, beste askoren artean, pasabideetan entzuten diren (Angel Ganivet-Santa Luzia, 2019c).

Eskola honetan ikasturte erdian ikasle berriak jasotzea oso ohikoa dela aipatzekoa da. Hortaz, egoera honetarako Harrera Plan zehatz bat dago, gela prestatzeko aukera izatearren. Hortaz, alde batetik ikasle berriak beharko dituen materiala prestatzen da eta, beste aldetik, tutorea eta zuzendaria ikasle berriaren familiarekin harremanetan jartzen dira. Gainera, behin ikaslea gelan dagoela, "lagun

berezia” esleitzen zaio. Hori dela eta, gelako ikasle batek ume berria laguntzeko prest egongo da, batez ere lehenengo astetan (Angel Ganivet-Santa Luzia ikastetxea, 2019c).

Eskolan erabiltzen den metodologiari dagokionez, hainbat ezaugarri aipatzea komenigarria da, proposamen didaktikoak hauek errespetatu beharko ditu eta:

- a) Ikaslea hezkuntzaren ardatza da.
- b) Oinarriko gaitasunak arloetako edukien bidez garatzen dira.
- c) Ikasleen aniztasunari garrantzia ematen zaio.
- d) Irakasle guztiak hezitzaileak dira eta modu koordinatu batean lan egiten dute umeen heziketan ardura duten pertsonekin eta familiekin.
- e) Irakasleek ikasleak laguntzen, motibatzen eta orientatzen dituzte; irakaskuntza aktiboa bultzatzen da (Angel Ganivet-Santa Luzia ikastetxea, 2019b).

Honez gain, eskolan hainbat proiektu aurrera eramaten dira. Haien artean Bizikidetzaren Proiektua aurkitzen da. Haren helburua elkarbizitza hobetzeko ekimenak sustatzea eta garatzea da. Hori dela eta, hezkuntza komunitatearen kide guztien arteko harremanak modu egoki batean bideratzen saiatzen dira eta haien inplikazioa bilatzen da.

Gelari dagokionez, proposamen didaktikoa bosgarren mailako gela batean inplementatzeko diseinatuta dago. Honetan 25 ikasle daude, 15 mutil eta 10 neska. Kopuruen datuak berebiziko garrantzia du kasu honetan. Izan ere, neskak orokorrean oso zintzoak eta lasaiak diren bitartean, mutilek klaseko giroa guztiz asaldatzen dute. Ez guztiek, noski, baina bakarrik lauk portaera egokia dute. Hori dela eta, gelako erritmoa asko moteltzen da, saioak etengabe gelditu behar dira eta. Gainera, klaseko giroan eragina du, ez baita batere egokia. Egunero gatazkak sortzen dira (ikasleren batek beste bat jotzen edo iraintzen duelako, adibidez).

Umeen artean, lau errepikatzaile daude. Gainera, bi ikaslek dislexia daukate, haietako batek diskalkulia ere, eta beste bi umek eskolatik kanpo jarraipen psikologiko bat dute arrazoi desberdinengatik. Hortaz, materiala prestatzerako eta jarduerak pentsatzerako orduan kontuan hartu beharreko ezaugarriak dira. Kulturei dagokienez, oso anitzak dira ere. Hortaz, ikasle guztiak Gasteizen jaio diren arren, haien familiari jatorri desberdinetakoak dira, hala nola Dominikar Errepublikakoak, Saharakoak, Marokokoak, Galiziakoak edo Kolonbiakoak. Hala ere, euskal kultura guztiz barneratuta dute, nahiz eta etxean eta eskolan aurkitzen duten errealitatea oso desberdina izan.

Hortaz, lehen esan bezala, gelako klima ez zen eroso. Hori dela eta, bertan egoera hobetu daitekeen programa bat martxan jartzea oso egokia da. Horretarako, arazo jakin bat aurkitu behar da eta, hasteko, ikasle bakoitzak gela barruan betetzen duen rola behatu da. Izan ere, rol jakin batzuk oso egokiak dira gelako giroa ona izatea lortzeko, baina beste batzuk ez. Beraz, hauek behatuz gero, lanketa nondik egin daitekeen aurkitu ahal da. Behaketa egiteko, Juan Vaellok (2007) aipatzen duen taula erabili da, Balesen taxonomian oinarritzen dena. Bertan, rol bakoitza hiru ezaugarri bipolarren bidez zehazten da. Hortaz, hiru irizpide nagusiak hurrengoak dira:

- a) Boterea
 - *Goranzkoa (G)*: Agintzen, zuzentzen eta erabakitzen duen ikaslea, besteak arrastatzen dituena.
 - *Beheranzkoa (B)*: Joera nagusia jarraitzen du, besteek erabakitzen dute bere izenean, besteen esanak betetzen ditu.
- b) Onarpena
 - *Positiboa (P)*: Besteek onartzen dute, bilatzen dute, berarekin egon nahi dute.
 - *Negatiboa (N)*: Besteengandik arbuioa jasotzen du, ez diote kasurik egiten eta urruntzen dira.
- c) Ekarpena
 - *Lankidea (L)*: Lanean parte hartzen du, ekarpenak egiten ditu, besteak animatzen ditu eta jarrera aktiboa du.
 - *Uzkurra (U)*: Ez du parte hartzen lan egiterako orduan, oztopoak baino ez ditu jartzen, lanari ihes egiten dio, taldea gogogabetzen du.

Hauek konbinatuz gero, 26 rol desberdin agertzen dira. Hala ere, bakarrik klasean agertzen direnak aipatzen dira gelako diagnostikoan. Hori dela eta, behaketa egin eta gero, gelaren emaitza I. eranskinetako taulan ikus daiteke. Hau aztertu ondoren, argi dago ikasle batzuen jarrera ez dela egokia gelan giro ona egotea lortu nahi bada. Hortaz, arazo larriena haien artean sortzen diren gatazkak direnez, borrokak eta irainak eguneroko kontuak bihurtu direlako, hauek konpontzeko proposamen bat egitea komenigarria da. Izan ere, guztien artean enpatia eta asertibitatea lantzeko jarduerak egitea bideragarria dirudi, jokaera desegokiak dituztenek haien ikaskideen laguntzarekin hauek zuzentzeko aukera izango dutelako eta gainerakoek haien jarrera positiboak sendotuko dituztelako.

Hau guztia esanda, aipatzekoa da COVID-19 dela eta, proposamen didaktikoa aurrera eramatea ezinezkoa izan dela. Izan ere, martxoan klaseak bertan behera gelditu ziren eta ikasleentzat klase presentzialak amaitu ziren.

5.2. METODOLOGIA

Proposamenean zehar jarraitzen den metodologiari dagokionez, aktiboa izatea bilatzen da. Izan ere, nahiz eta klaseko giroa hobereana ez izan, ikasleek klaseetan parte hartzeko dituzten gogoak azpimarratzekoak dira. Hortaz, horrelako metodologia bat proposatzea eskertuko dute eta haien zentzuzkoak izango dira. Horren ondorioz, jardueren protagonistak izango dira eta haien ekarpenak ezinbestekoak izango dira ariketak ondo atera daitezzen. Gainera, haien esperientziak partekatzeak programa aberastuko du. Hala ere, hau lortzeko jarduera guztietan zehar gelan konfiantzazko giro bat mantentzearen garrantzia nabarmendu behar da, haiek ziur sentitzeko eta beldurrik gabe hitz egiteko.

Irakasleari dagokionez, ikasleen laguntzailea izango da. Horregatik jarduerak proposatuko eta bideratuko ditu, baina ez die zuzenean galderen erantzuna emango, guztien artean ezagutza eraikitzen joateko. Hau da, ikasleei autonomia emango die. Hala ere, berak egingo dituen zuzenketak eta ekarpenak ezinbestekoak izango dira helburuak lortzen direla bermatzeko. Izan ere, zailtasunak agertzekotan edo moldaketak egin behar izatekotan, bere ardura izango da. Hori dela eta, ager daitezkeen arazoak aurreikusi beharko ditu. Gainera, ume guztiek klaseko erritmoa jarraitzeko gai direla bermatu beharko du, gelan zailtasunak dituzten umeak daude eta. Honez gain, irakasleak ezingo du ahaztu eredu bat dela eta gaitasun sozialen inguruan hitz egiten denean, ikasleek berak dituenak erreproduzitzeko aukera izango dute. Hortaz, asko zaindu beharko komunikatzeko daukan modua.

Amaitzeko, gaitasun sozialak garatzeko *Konpetentzia soziala haurtzaroan eta haren lorpena* atalean aipatutako mekanismo desberdinak erabiltzeko ahaleginak egingo dira (esperientzia zuzena bidezko ikasketa, behaketa bidezko ikasketa, instrukzio bidezko edo hitzezko ikasketa eta feedback interpersonala bidezko ikasketa). Gainera, *Gaitasun sozialak lantzeko programak* atalean aipatzen diren pausuak ere ahal den neurrian jarraituko dira (1. hitzezko formakuntza, 2. modelaketa, 3. praktika, 4. *feedback*-a eta errefortzua, 5. zereginak).

5.3. EDUKIAK

Programaren edukiak zehazteko, Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, erabiliko da. Izan ere, oinarrizko hezkuntzako curriculumak zehazten du. Hala ere, enpatiarekin eta asertibitatearekin zuzenenean erlazionatuta dauden edukiak bakarrik esplizituki 1. zikloan agertzen direla aipatzekoa da, 2. zikloan jada ikasita daudela ulertzen baita. Hortaz, gelaren beharrak ikusita, eta nahiz eta 5. mailako gela batean lan egin, lehenengo ziklokoak kontuan hartuko dira, ikasleek oraindik ikasi behar dituzten eduki garrantzitsuak dira eta. Hala ere, gorputz adierazpenaren eta hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzien atalak 2. zikloko edukien barne agertzen dira eta bertatik aterata daude.

Beraz, landuko diren oinarrizko kompetentziak hurrengoak dira:

1. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako kompetentzia (30. orr)

Giza garapenerako komunikazioa ezinbestekoa da. Alde batetik, alderdi indibidualean, norberak jarduteko modua egokitzeko eta adierazteko. Beste aldetik, alderdi sozialean, sentimenduak erregulatzeko balio du. Gainera, komunikazio eraginkorrak egiten jakinez gero, beste pertsonen lekuan jartzeko, elkarbizitza erregulatzeko eta beste pertsona batzuekin lankidetzan aritzeko gaitasuna garatzen da.

2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia (34. orr)

Ikasleak informazioa jasotzen dute eta haien lana hau ebaluatzea eta nola ebaluatu duten adieraztea da. Hau da, pentsamendu kritikoa garatzen da kompetentzia honetan, besteak beste. Gainera, baliabide kognitiboen erabilera estrategikoa egin behar dute, modu horretan ikasitakoari erabilpena emanaz eta hau beste egoera batzuetara transferituz.

3. Elkarbizitzarako kompetentzia (40. orr)

Kompetentzia hau programa osoaren muina dela esan daiteke. Izan ere, gainerako pertsoneri nork bere buruari aitortzen dizkion eskubideak eta betebeharrak aitortzea ahalbidetzen du, norberaren eta guztien ongizateari ekarpen bat eginez. Gainera, norberaren sentimenduak, pentsamenduak eta nahiak modu asertiboan adieraztea suposatzen du, baita besteenak entzuteko eta kontuan hartzeko ere. Honez gain, sortzen diren gatazkak elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez konpontzen laguntzen du.

4. Norbera izaten ikasteko kompetentzia (48. orr)

Alde batetik, ikasleek sortzen diren ahozko diskurtsoak ulertzeko eta adierazteko gaitasuna lortuko dute. Beste aldetik, berriz, haien portaera soziala eta morala erregulatzeko gai izango dira. Honen barnean, portaera sozialak, gatazkak konpontzea, emozioen erregulazioa, enpatia eta asertibitatea sartzen dira, besteak beste.

Programara egokitzen diren zehar-kompetentziak aztertu eta gero, oinarrizko diziplina barneko kompetentziak aztertu behar dira. Lehen esan bezala, 5. maila izan arren, lehenengo ziklokoak hartuko dira kontuan balio sozial eta zibikoaren atalean, kompetentzia motorrarena eta hitzezko- eta literatura-komunikaziorako kompetenziarena bigarren ziklokoak diren bitartean:

1. Hitzezko- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia

- 2. multzoa: Ahozko komunikazioa: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea (124. orr)

Eduki multzo honen barruan harreman interpersoneletan eta hezkuntza-esparruan sortzen diren komunikazio-egoeretan parte hartzea eta kooperatzea dago, betiere solaskideengan errespetua gordez. Gainera, ahozko testuak sortzeko gaitasuna aipatzen da ere. Hortaz, horren barruan emozio eta iritzien adierazpenak sartzen dira. Honez gain, besteek esaten dutena entzutea eta ulertzea oinarrizkoa da ere.

2. Balio sozial eta zibikoak

- 2. multzoa: Pertsonaren nortasuna eta duintasuna (239.orr)

Honen barruan asertibitatea eta pertsonen arteko harremanetan daukan eragin positiboa ikasten da, baita erabaki asertiboak hartzeko estrategiak ere. Gainera, sentimenduak eta emozioak identifikatzeko eta adierazteko gaitasuna lortzen da, betiere enpatia oinarritzat hartuta. Honez gain, arauak errespetatzen eta norberaren eta besteen mugak zeintzuk diren ikasten da, baita hauek errespetatzen ere.

- 3. multzoa: elkar ulertzea eta errespetua pertsonen arteko harremanetan (240.orr)

Honen barruan besteen mezuak errespetuarekin entzuteko prestasuna sartzen da, baita interesa adierazteko gaitasuna ere. Gainera, asertibitatea lortzeko bidea da. Hortaz, duintasuna eta desberdintasunerako eskubidea babesteko konpromisoa hartzen

da, inguruko pertsona hurbilekin elkarrizketak izateko eta harremantzeko jarrera irekia ikasten da eta komunikazio-trebetasunak hobetzen dira, besteak beste.

3. Konpetentzia motorra

- 3. multzoa: gorputz-adierazpena eta komunikazioa (273. orr)

Gaitasun sozialak landu nahi direnean, gorputzaren, keinuen eta mugimenduaren bidez emozioak eta sentimenduak adierazi ahal direla kontuan hartu behar da. Hortaz, role playing-ak edo antzerkiak egiterako orduan hau lantzea ezinbestekoa izango da. Gainera, besteen emozioak eta sentimenduak identifikatzerako eta ulertzerako orduan lagungarria da.

5.4. HELBURUAK

Helburuei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, kontuan hartuz gero, hurrengo etapako helburuak atera daitezke:

- a) Nork bere balio-sistema eratzea, oinarri-oinarrizkoa bada ere, bizitza-proiektua hartan oinarritzeko. Horretarako, arrazionaltasuna, autorregulazio emozionala eta enpatia erabiliko dira, egoerei buruzko iritzi moralak autonomia eta objektibotasun nahikoaz emateko (237.orr).
- b) Bizikidetzara-arauek proposatu, egin eta errespetatzea, eta elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea gatazkak eraldatzeko, guztien artean ingurune atsegin iraunkor bat sortzeko (237.orr).
- c) Generoa, jatorria, etnia, sinesmenak, desberdintasun sozial eta pertsonalak, orientazio afektibo-sexualak edo beste edozein motatakoak direla-eta sortutako gatazkak identifikatu eta aztertzea, giza eskubideetan oinarritutako elkarbizitza bidezkoa eta berdintasunezkoa eragozten duten jarrerak arbuiatzeko (237.orr).

Hala ere, honez gain, beste hainbat helburu aipatu ahal dira, 236/2015 Dekretuan zehazten ez direnak eta gelaren beharretara guztiz zehazten direnak:

- a) Enpatia lantzea.
- b) Norberaren eta besteen sentimenduak eta emozioak identifikatzea eta ulertzea.
- c) Ikasleen arteko harreman interpertsonalak sustatzea.
- d) Sortzen diren gatazkak elkarrizketaren edo negoziazioaren bidez konpontzea.
- e) Jarrera asertiboa garatzea.

- f) Norberak bere jarrerak aztertzeko eta, behar izatekotan, hauek aldatzeko aukera izatea.

5.5. BALIABIDEAK

Atal honetan diseinatutako programa aurrera eramateko beharrezkoak diren baliabideak azaltzen dira. Izan ere, jarduerak burutzea ahalbidetuko dute. Hiru atal desberdinetan sailkatzen dira: baliabide espazialak, pertsonalak eta didaktikoak.

Baliabide espazialak

Jarduerak modu egoki batean egin ahal izateko, gela arrunta nahikoa izango da. Hala ere, honen antolaketa aldatzen joango da. Hortaz, talde txikietan lan egitean mahaiak txokoka jarri beharko dira; antzezpenak egitean, aldiz, mahaiak mugitu beharko dira leku nahikoa izateko; eta debatea egitean, berriz, mahaiak bi talde handitan antolatu beharko dira, bi kontrako jarrerak daudela argi irudikatzearren.

Baliabide pertsonalak

Programa aurrera eramateko irakasle tutorea beharko da. Hala ere, gelan zailtasunak dituzten umeak daude eta astero psikopedagogo terapeutikoak ordu batzuk gelara sartzen dira. Hortaz, programan parte hartu eta lagundu nahi izatekotan, gelan haien lekua aurkituko dute arazorik gabe.

Baliabide didaktikoak

Ariketak egiteko ez da material askorik behar, garrantzitsuena umeak berak dira eta. Izan ere, jarduera gehienak haien gorputzekin egitea nahikoa da, antzezpenak direlako. Hala ere, ariketaren batean inprimatutako fitxak beharko dira, baita txartel txikiak (sentimenduak, emozioak edo egoerak idatzita dituztenak), artilezko harila eta ipuina ere. Ezinbestekoa da gogoratzea dislexia duten ikasleak daudela, hortaz letra argia, handia eta bananduta izan beharko da haiei lana ahalik eta gehien erraztearren.

5.6. JARDUERAK

Guztira, zortzi jarduerak osatzen dute gaitasun sozialak lantzeko balio duen programa hau. Hauek bi atal desberdinetan banatzen dira. Alde batetik, asertibitatea lantzeko balio dutenak daude eta beste aldetik, berriz, enpatia lantzeko direnak.

JARDUERA	ASERTIBITATEA	ENPATIA
1. Jarduera	X	
2. Jarduera	X	
3. Jarduera	X	
4. Jarduera	X	X
5. Jarduera		X
6. Jarduera		X
7. Jarduera		X
8. Jarduera		X

1. Jarduera: Arratoiak, dragoiak eta benetako gizakiak.

Iraupena: 45 minutu.

Espazioa: Gela arrunta.

Gaitasunak: Elkarbizitzarako kompetentzia, ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia eta norbera izaten ikasteko kompetentzia.

Eduki multzoak: Balio sozial eta zibikoak (2. eta 3. multzoak).

Taldekatze mota: Talde handian.

Materiala: Ipuina.

Deskribapena: Jarduera hau liburu baten kapitulu bat irakurtzean datza, García Perez-en eta Magaz Lago-ren (1998) liburutik, hain zuzen ere (ikus II. eranskina). Bi aukera daude, irakasleak ikasleei irakurtzea edo zuzenean ikasleak txandaka eta ozen irakurtzen joatea. Ikasleak adi egotearren, bigarren aukera komenigarriagoa dirudi. Hala ere, gelaren ezaugarrien arabera beste aukera ere egokia izan daiteke. Liburuari dagokionez, bigarren kapitulua da programara egokitzen dena. Honetan, jarrera pasiboan, agresiboan eta asertiboan inguruko hausnarketa bultzatzen da. Izan ere, metafora bat egiten da: arratoiak pasiboak diren pertsonak dira, dragoiak agresiboak direnak eta gizaki zoragarriak asertiboak dira. Gainera, liburuan zehar galderak agertzen dira, umeak jarrera aktibo batekin mantentzeko eta etengabeko hausnarketa bultzatzearen. Modu horretan, asertibitatearen oinarriak ezagutzen joango dira eta haien jarrerak identifikatzeko gai izango dira, baita haien esperientzia pertsonalak gainerako ikasleekin partekatzeko ere. Honez gain, aipatzekoa da bigarren kapituluan batez ere arratoinen eta dragoinen inguruan hitz egiten dela. Hori dela eta, gizaki

zoragarriak nolakoak diren jakiteko aurrerago lanketa bat egin behar da edo zuzenean hirugarren kapitulua irakurri.

2. Jarduera: Role playing

Iraupena: 60 minutu

Espazioa: Gela arrunta.

Gaitasunak: Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia eta norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Eduki multzoak: Konpetentzia motorra (3. multzoa) eta balio sozial eta zibikoak (2. multzoa).

Taldekatze mota: Erreproduzitu behar duten egoeraren arabera bakarka edo talde txikietan egingo da ariketa, baina hausnarketa talde handian izango da.

Materiala: Egoera desberdinak deskribatzen dituzten txartelak (ikus III. eranskina).

Deskribapena: Txarteletan egoera desberdinak deskribatuta egongo dira. Baina, horrez gain, txarteletan egoera horri eman behar zaion erantzuna idatzita agertuko da ere. Horrela, ikasleek bakarka edo talde txikietan egoera eta erantzuna antzeztuko dituzte txandaka. Behin hori eginda, ikusleek erantzuna asertiboa, agresiboa edo sumisoa izan den esan beharko dute. Modu horretan, erantzuna desegokia dela ikusten dutenean, hau zuzentzeko proposamenak esango dituzte. Erantzuna egokia izan dela uste badute, berriz, horren zergatia azaldu beharko dute. Jarduera honetan komenigarria izan daiteke irakasleak lehenengo antzezpenetan gehiago laguntzea, ikasleek ariketan lortu nahi dena zer den ondo ulertzearen eta ariketa bideratzearen. Gainera, haien ekarpenak arrazoitzea garrantzitsua izango da, benetako hausnarketa egiten dutela bermatzearen.

3. Jarduera: Gure eskubideak identifikatzen eta sortzen!

Iraupena: 45 minutu.

Espazioa: Gela arrunta.

Gaitasunak: Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia eta elkarbizitzarako konpetentzia.

Eduki multzoak: Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia (2. multzoa) eta balio sozial eta zibikoak (3. multzoa).

Taldekatze mota: Hasieran talde txikietan eta azkenean talde handian.

Materiala: Kartelak sinesmen okerrekin eta egiazkoekin (ikus IV. eranskina), orri zuria eta boligrafoa.

Deskribapena: Jarduera honen bidez ikasleek dituzten eskubideak ezagutzea bilatzen da, eskubide asertiboak hain zuzen ere. Izan ere, askotan okerrak diren esaldiak entzun behar dituzte (hala nola akatsak egitea txarto dagoela edo lotsagarria dela) baina oso gutxitan entzuten dituzte haien eskubideak (akatsak egiteko eskubidea daukatela, adibidez). Hau dela eta, kartel batzuetan okerrak diren esaldiak eta benetako eskubideak agertuko dira eta ikasleek, 4-5 kideko taldeetan jarrita, benetako eskubide asertiboak identifikatu beharko dituzte. Ondoren, talde handian talde bakoitzak egindakoa azalduko du eta bere sailkapenaren arrazoiak azalduko ditu. Garrantzitsua izango da ikasleei eskubide asertiboen alde positiboak azpimarratzea, jarduera amaitzeko gelako eskubide asertiboen dekalogoia sortzea proposatuko zaielako. Horrela, beti gelan egongo dira eta, bertako arauak izango direnez, errespetatu beharko dituzte.

4. Jarduera: Mezu sekretuak

Iraupena: Kutxa gelan aste bat eta hausnarketarako saioa 45 minutu.

Espazioa: Gela arrunta.

Gaitasunak: Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia, elkarbizitzarako konpetentzia eta norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Eduki multzoak: Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia (2. multzoa) eta balio sozial eta zibikoak (2. eta 3. multzoak).

Taldekatze mota: Kutxan mezuak bakarka sartzen joan dira baina haien azterketa eta geroagoko hausnarketa talde handian egingo da.

Materiala: Kutxa, papera eta boligrafoa.

Deskribapena: Gelan kutxa bat jarriko da. Irakasleak umeei azalduko die aste oso batean zehar bertan gelan gertatzen diren gatazkak motz azaldu ahal dituztela. Guztia modu anonimo batean egingo da. Horrela, aste bat pasa eta gero, kutxa irekiko da eta irakasleak guztiak ozen irakurriko ditut gelaren aurrean banan-banan. Jarduera honi esker gelan aurkitzen diren jarrera desegokiak identifikatzeko gai izango dira eta horiek besteengan duten eragina aztertuko da. Hortaz, ariketa hau enpatia lantzen hasteko zubia da. Izan ere, mezuak irakurtzean galdera desberdinak egiten joango da irakaslea (hala nola *nola uste duzue sentituko dela beste pertsona?*) eta besteen lekuan jartzeko aukera bikaina izango da.

5. Jarduera: Harilaren ariketa

Iraupena: 30 minutu.

Espazioa: Gela arrunta.

Gaitasunak: Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia, elkarbizitzarako konpetentzia eta norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Eduki multzoak: Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia (2. multzoa) eta balio sozial eta zibikoak (3. multzoa).

Taldekatze mota: Talde handian.

Materiala: Artilezko harila

Deskribapena: Taldeko kide guztiek lurrean esertzen dira eta irakasleak artilezko harila ikasle bati botatzen dio haren mutur bat askatu gabe. Artilezko harila botatzen duen bitartean, botatzen dion pertsonaren ezaugarri positibo bat esan beharko du. Artilea jasotzen duen pertsonak hau hartuko du, zati bat helduko du eta berdina egingo du. Modu horretan taldeko kide guztiek artilea jasoko dute eta poliki-poliki armiarma moduko bat sortzen joango dira. Ariketa honen helburua umeei jarduera egin duten bitartean nola sentitu diren azaltzea da; hau da, besteen alderdi positiboak esan dituztenean eta mezu positiboak jaso dituztenean. Gainera, jarduera hau egiteak konfiantzazko giroa sortzerako orduan oso baliagarria izan daiteke.

6. Jarduera: Sentimendu bat zizelkatzen

Iraupena: 30 minutu.

Espazioa: Gela arrunta.

Gaitasunak: Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.

Eduki multzoak: Balio sozial eta zibikoak (2. multzoa) eta konpetentzia motorra (3. multzoa)

Taldekatze mota: Binaka eta talde handian.

Materiala: Txartelak emozioekin edo sentimenduekin.

Deskribapena: Talde handian egonda, 2 boluntario eskatuko ditu irakasleak. Bat eskultura izango da eta bestea zizelkaria. Hortaz, emozio edo sentimendu bat idatzita dutenen arteko txartel bat hartuko dute (tristura, poztasuna, haserrea, beldurra, damutasuna, nazka, maitemina, segurtasuna...) eta zizelkariak bertan jartzen duena adierazi beharko du beste ikaslea mugituz. Horrela, sentimendu edo emozio hori

adierazten duen eskultura bat sortuko du eta gainerako ikasleek sentimendu edo emozio hori zein den asmatu beharko dute. Modu horretan, ikasleek besteen emozioak edo sentimenduak identifikatzen ikasiko dute. Gainera, behin asmatuta, talde handian galderak erantzungo dituzte haien sentimendu edo emozio hori zer den, non, nola eta zergatik sentitu duten jakiteko. Horrela, besteen lekuan jarri ahalko dira, haiek benetan nola sentitzen diren ulertzearren.

7. Jarduera: Besteen esploratzaileak

Iraupena: 30 minutu.

Espazioa: Gela arrunta.

Gaitasunak: Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.

Eduki multzoak: Balio sozial eta zibikoak (2. multzoa) eta konpetentzia motorra (3. multzoa).

Taldekatze mota: Banaka eta talde handian.

Materiala: Egoera desberdinak paper batean eramatea.

Deskribapena: Irakasleak ikasleak modu aleatorio batean aukeratzen joango da, banan-banan, eta bakoitzari egoera bat kontatuko dio. Ondoren, ikasleak egoera hori adierazi beharko du, baina hitzik gabe. Helburua ikasleek egoera zein den asmatzea da. Horretarako, galderak egin ahal dituzte, baina bakarrik bai de ez batekin erantzun daitezkeenak. Komenigarria izan daiteke irakasleak ere parte hartzea, umeez eredu on bat ikus dezaten. Behin ikasleren batek egoera asmatu duela, besteei azaldu beharko die zergatik asmatu duen; hau da, zer ikusi duen berak egoera hori zela jakiteko (noizbait bizi izan duelako, keinuak identifikatu dituelako...).

8. Jarduera: Alderantzizko debatea

Iraupena: 45 minutu.

Espazioa: Gela arrunta.

Gaitasunak: Hitzeko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia, ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia, elkarbizitzarako konpetentzia eta norbera izaten ikasteko konpetentzia.

Eduki multzoak: Hitzeko- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia (2. multzoa) eta balio sozial eta zibikoak (3. multzoa).

Taldekatze mota: Bi talde handi.

Materiala: Ez da ezer behar.

Deskribapena: Irakasleak ikasleei haien intereseko edo egungo gaiak proposatuko die. Horren ondorioz, ikasleek gai horren aurrean jarrera bat hartu beharko dute (alde edo kontra, adibidez). Modu horretan, gela bi taldetan banatuta geldituko da, ahalik eta orekatuen gelditzea lortu beharko du irakasleak, eta debate bat hasiko da. Horrela, guztiek haien jarrera defendatzeko aukera izango dute. Hala ere, argudio bat bota eta gero, zuzenean kontrako jarrera defendatu beharko dute. Horrela, besteen lekuan jartzen ikasiko dute, baita iritzi desberdinak errespetatzen eta ulertzen ere, betiere guztien eskubideak errespetatzen dituzten bitartean. Gainera, lanketa hau eginez gero, bi pertonek desberdin pentsatzeagatik gatazkak ez direla sortu behar ikusiko dute eta, sortzekotan, argudioak emanaz eta elkarrikeria bat mantenduz konpondu ahal dela zuzenean ikusiko dute.

5.7. EBALUAZIOA

Programaren ebaluazioa hiru zatitan banatuko da: programa hasi baino lehen egingo den ebaluazioa, programa garatzen den bitartean egingo dena eta programa amaitzean egingo dena.

Programa hasi baino lehenagoko ebaluazioa

Ebaluazio hau egiteko test bat burutuko dute ikasleek. Honen helburua gelaren egoera ezagutzeta da, baita programa amaitzean emaitzak hobetu diren edo ez aztertzea. Hortaz, testa ikasleek asertibitatean eta enpatian oinarritzen diren jokaerak dituzten edo ez jakiteko balioko du, edo behintzat erantzun horiek ondo daudenak direla dakiten edo ez (ikus V. eranskina).

Programa burutzen den bitarteko ebaluazioa

Programa ebaluatzeako estrategia desberdinak erabiliko dira, baina ebaluazioa etengabea eta jarraia izango da. Hori dela eta, egiten diren jarduera guztiak ebaluatuko dira. Hau lortzeko, bi modutan egingo da. Alde batetik, irakasleak behaketa egin beharko du. Hortaz, zerbait deigarria ikustekotan, zuzenean horren informazioa gorde beharko du. Horretarako, koaderno batean idazten joan daiteke. Beste aldetik berriz, errubrikak erabiliko dira, betiere 236/2015 Dekretuak zehazten dituen ebaluazio-irizpideetan oinarrituz; hau da, Heziberri 2020k esaten dituenak.

Errubrikak sortzeko, edukiak kontuan hartu dira. Hortaz, hiru errubrika desberdin daude, lehenengoa hitzezko- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia ebaluatzeko (ikus VI. eranskina), bigarrena balio sozial eta zibikoak ebaluatzeko (ikus VII. eranskina) eta hirugarren konpetentzia motorra ebaluatzeko (ikus VIII. eranskina). Hortaz, jarduera bakoitza ebaluatzeko, bakoitzean lantzen dena kontuan hartu behar da. Horren ondorioz, jarduera batzuetan bakarrik errubrika bat beharko da, baina beste batzuetan bi edo hiru.

Irakasleak ikasleen ebaluazioa egiteaz gain, ikasleen iritzia programa aurrera eramanean bitartean ere garrantzitsua da. Gainera, emozioak lantzean, berebiziko garrantzia du umeak ondo daudela jakiteak eta arazorik gabe partekatzen dituztela bere sentimenduak. Hortaz, nahiz eta sinplea izan, jarduera bakoitzaren amaieran galdetegi motz bat egitea komenigarria da (ikus IX. eranskina). Horrela irakasleak jakingo du moldaketak egin behar dituen edo ez eta ikasleek proposamenak egiteko aukera izango dute.

Programa amaitu eta geroko ebaluazioa

Behin programa amaituta, irakasleak jada ebaluazioa eginda izango du, egunero egin izan behar duen lana baita. Hala ere, gaitasun sozialak lantzen hasi baino lehen egindako testa (ikus V. eranskina) ikasleek berriro erantzutea interesgarria izan daiteke. Modu horretan egindako lana benetan baliagarria izan den edo ez jakingo da, bakarrik emaitzak hobetu edo okertu diren aztertu behar da eta. Hala ere, lehen esan bezala, nahiz eta programa amaitu, egunerokotasunean landu beharreko gaia da, hortaz ebaluazioa ikasturtean zehar egingo da behaketaren bidez.

6. EMAITZAK ETA ONDORIOAK

Programa martxan jarri ezin izan denez, hau aurrera eramatekotan zer gertatuko litzatekeen pentsatu baino ezin da egin. Hala ere, gela honetan praktiketako garaian unitate didaktiko bat aurrera eramanean dela kontuan hartu behar da. Hortaz, ikasleen ezaugarriak eta lan egiteko ohiturak ondo ezagutzen dira.

Gelako giroa irakaskuntzarako aproposa ez dela eta irakasle tutoreak horri buelta emateko egiten dituen ahaleginak kontuan hartuz, horrelako programa bat aurrera eramatea onurak baino ezin ditu eman. Izan ere, gelan elkarbizitzaz hitz egitean, ikasleak egoera deskribatzen dutenak dira, aldaketa bat behar dutela nabaritzen

dutelako. Hau da, haiek jada nabaritzen dute gustura ez daudela. Hortaz, hori aldatzeko ideia bat dagoela azaltzean, hasieran gogoekin hartuko dute.

Haien parte hartzea orokorrean oso ona da. Beraz, klase magistraletan jada adi eta hitz egiteko prest badaude, metodologia aktiboago bat ezkututzen duen proposamenaren aurrean berdin mantenduko da edo areagotuko da. Hala ere, jokabide oso desegokiak dituzten ikasleak daude. Hortaz, lehenengo egunetan zailtasunak egongo dira, askatasun gehiago dutela sentitzen dutenean portaera okerragoak dituztelako. Baina helburua ikasle guztiek gelan mantentzea eta edukiak garatzea denez, jarrera haiek bideratu beharko ditu irakasleak saioak aurrera eraman ahal izateko.

Edukien aldetik argi dago bosgarren maila batean jada ezagutu behar dituzten kontuak direla. Hori dela eta, ikasle batzuk jarrera oso egokiak dituzte. Beraz, hauek gehiago sendotzeko eta barneratzeko baliagarria izango dira. Oraindik eduki hauek ez dakizkitenek arazorik gabe ulertuko dituzte, nahiz eta portaeraren aldetik gelan arazoak egon, gaitasunen aldetik ez, oso talde argia da. Erronka nagusia ikasitakoa egunerokotasunera eramatea izango da, benetan aplikatzea. Hortaz, jarduera hauek egitearekin nahiko izango ez dela argi gelditu behar da. Izan ere, irakasleak egunero gogoratu beharko dien kontua izango da eta ikusten duen edozein jarrera desegokia zuzentzeko ahalegina egin beharko du, umeek benetan kontziente izateko eta aldaketa bat egin ahal izateko.

7. MUGAK ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK

Behin programaren diseinua amaituta, haren mugak aztertzea ezinbestekoa da. Hortaz, hasteko, gela gatazkatsu batean sentimenduen, emozioen eta pentsamendu pertsonalen inguruan hitz egitearen zailtasuna azpimarratu behar da. Izan ere, modu eroso eta ziur batean egiteko konfiantzazko giro bat beharrezkoa da. Hortaz, hori lortzea zaila izan daiteke eta, hori ez lortzekotan, programak ez du askotarako balio, umeak ez direlako sakontzeko gai izango. Hau da, ideiak entzungo dituzte eta errepikatuko dituzte, baina ez dute haien jokabidean benetako aldaketa bat eragingo. Beraz, arrisku hori dago eta irakaslearen lana da giro egokia sortzea.

Jarraitzeko, normalean modu zuzen batean lantzen ez den gaia da. Hori dela eta, gerta daiteke irakasleak behar diren ezagutzak ez izatea. Hau saihesteko, programa burutu baino lehen, aurretiko prestakuntza bat egin beharko luke. Hau muga bat da,

noski, irakasle guztiak hau egiteko prest ez daudelako edo denborarik ez dutelako. Horren ondorioz, gaia ez da ondo lantzen, edo zuzenean ez da ematen, eta denbora hori beste eduki batzuetara eskaintzen diote.

Honez gain, lana ikasleentzat esanguratsuagoa izatearren, familien partaidetza izatea zoragarria izango litzateke. Izan ere, familiak eskola komunitatearen parte dira eta gelaren ateak irekita daude haientzat. Hortaz, haiekin harremanetan jartzea eta proposamen bat luzatzea oso komenigarria izango litzateke.

Amaitzeko, edukiak normalean ume txikiagoekin lantzen da. Kasu honetan bosgarren maila batean egitea komenigarria da gelaren ezaugarriak direla eta. Horren ondorioz, ariketa batzuk adin gutxiagoko umeentzat iruditu daitezke, hala nola ipuinak kontatzearenak. Hala ere, jarduerak ondo burutuz gero eta hausnarketari protagonismo handia emanez, haiekin egiteko aproposak izan daitezke.

8. BIBLIOGRAFIA

8/2013 Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko Lege Organikoa (LOMCE). Estatuko Aldizkari Ofiziala (BOE). 2013aren abenduaren 9an.

236/2015 Dekretua, Oinarrizko Hezkuntza Curriculuma. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2015aren abenduaren 22an.

Álvarez, A., Álvarez-Monteserín, M^a. A., Cañas, A., Jiménez, S., & Petit, M^a. J. (1990). *Desarrollo de las habilidades sociales en niños de 3 a 6 años. Guía práctica para padres y profesores*. Madrid: Visor.

Angel Ganivet-Santa Luzia ikastetxea (2019a). *Ikastetxearen Urteko Plana*. Hemendik berreskuratua: https://www.angelganivet.eus/wp-content/uploads/2020/01/urteko-plana_eusk-19-20m.pdf

Angel Ganivet-Santa Luzia ikastetxea (2019b). *Angel Ganivet-Santa Luzia ikastetxeko hezkuntza proiektua*. Hemendik berreskuratua: https://www.angelganivet.eus/wp-content/uploads/2020/01/ganivet_hezkuntzaproiektua_behinbetiko_euskaraz.pdf

Angel Ganivet-Santa Luzia ikastetxea (2019c). *Ganivet ikastetxeko harrera plana*. Hemendik berreskuratua: <https://www.angelganivet.eus/wp-content/uploads/2020/01/harreraplanaosoa.pdf>

Bertrand Russell Psikologia Zentroa (2017). *Habilidades sociales*. Madril, Espainia.

Caballo, V. E. (1993). *Manual de evaluación y entrenamiento de las habilidades sociales*. Madril, Espainia: Siglo Veintiuno.

Castanyer, O. (1996). *La asertividad: expresión de una sana autoestima*. Desclée de Brouwer.

Davis, M., McKay, M. eta R. Eshelman, E. (1985). *Técnicas de autocontrol emocional*. Bartzelona, Espainia: Martínez Roca.

García Pérez, E.M. eta Magaz Lago, A. (1998). *Ratones, dragones y seres humanos auténticos*. Espainia: Consultores en Ciencias Humanas.

Izuzquiza Gasset, D. eta Ruiz Incera, R. (2007). *Tú y yo aprendemos a relacionarnos. Programa para la enseñanza en las Habilidades Sociales en el hogar*. Madrid: Fundación Prodis. Obra social de Caja Madrid y Down España.

Kelly, J. A. (1987). *Entrenamiento de las habilidades sociales* (8. Argitalpena). Bilbo: Desclée de Brouwer.

Monjas, M. I. (2000). *Las habilidades sociales en el currículo*. Madrid, España: Secretaría General Técnica.

Pérez, I. P. (2000). *Habilidades sociales: Educar hacia la autorregulación. Conceptualización, evaluación e intervención*. Barcelona: Horsori.

Ruggieri, V. L. (2013). Empatía, cognición social y trastornos del espectro autista. *Revista de neurología*. 56, 13-21.

Vaello Orts, J. (2005). *Las habilidades sociales en el aula*. Madrid, España: Santillana Educación.

Vaello Orts, J. (2007). *Cómo dar clase a los que no quieren*. Madrid, España: Santillana.

Vallés Arandiga, A. eta Vallés Tortosa, C. (1996). *Las habilidades sociales en la escuela: una propuesta curricular*. Madrid: EOS.

9. ERANSKINAK

I. Eranskina:

Taulan:

- Mutilak laranjaz.
- Neskak urdinez.
- Bakarrik irizpide baten edo biren letrak agertzekotan besteak neutroak direlako da.

Ikaslea	Rola
1. Ikaslea	Laguna (P): Bere sekretuak partekatzen ditu eta laguntzen du.
2. Ikaslea	Komediantea (GU): Etengabe txantxak egiten ditu, arreta behar du.
3. Ikaslea	Inkonformista (U): Beti desadostasuneko jarrera aurkezten du.
4. Ikaslea	Otzana (BL): Besteek harengan eragin handia dute.
5. Ikaslea	Isila (B): Ez ditu bere iritziak partekatzen.
6. Ikaslea	Taldeko liderra (GPL): Besteak gidatzen ditu, bere buruarengan konfiantza handia dauka.
7. Ikaslea	Otzana (BL): Besteek harengan eragin handia dute.
8. Ikaslea	Bakartia (BN): Besteekin harremantzea ekiditen dut.
9. Ikaslea	Taldeko liderra (GPL): Besteak gidatzen ditu, bere buruarengan konfiantza handia dauka.
10. Ikaslea	Lankide ona (PL): Ikaskideen ongizateaz arduratzen da.
11. Ikaslea	Lankide ona (PL): Ikaskideen ongizateaz arduratzen da.
12. Ikaslea	Lankide ona (PL): Ikaskideen ongizateaz arduratzen da.
13. Ikaslea	Desafiatzailea (GN): Jasotzen dituen iritzi edo ideia guztiak desafiatzen ditu.
14. Ikaslea	Laguna (P): Bere sekretuak partekatzen ditu eta laguntzen du.
15. Ikaslea	Taldeko liderra (GPL): Besteak gidatzen ditu, bere buruarengan konfiantza handia dauka.
16. Ikaslea	Laguna (P): Bere sekretuak partekatzen ditu eta laguntzen du.

17. Ikaslea	Desafiatzailea (GN): Jasotzen dituen iritzi edo ideia guztiak desafiatzen ditu.
18. Ikaslea	Otzana (BL): Besteek harengan eragin handia dute.
19. Ikaslea	Menderatzailea (G): Berak agindu behar duela uste du.
20. Ikaslea	Isila (B): Ez ditu bere iritziak partekatzen.
21. Ikaslea	Lankide ona (PL): Ikaskideen ongizateaz arduratzen da.
22. Ikaslea	Desafiatzailea (GN): Jasotzen dituen iritzi edo ideia guztiak desafiatzen ditu.
23. Ikaslea	Harroputza (GN): Taldeko kideak eta irakaslea mehatxatzen ditu eta batzuetan erasotzen ditu.
24. Ikaslea	Lankide ona (PL): Ikaskideen ongizateaz arduratzen da.
25. Ikaslea	Laguna (P): Bere sekretuak partekatzen ditu eta laguntzen du.

II. Eranskina:

Kapitulu hau García Pérez-en eta Magaz Lago-ren (1998) liburu batetik aterata dago.

SAGUAK, DRAGOIAK ETA BENETAKO GIZAKIAK!

MODU ERAGINKOR BATEAN PENTSATU NAHI DUZU?? INDARTSUA, SEGURUA
ETA ASERTIBOA IZAN NAHI DUZU?? JARRAITU IRAKURTZEN ET BENETAKO
GIZAKI BAT IZATEKO GAKOAK AURKITUKO DITUZU!!

SAGUAK

Saguak animalia JATORRAK, TXIKIAK, LEUNAK, DELIKATUAK... dira.

Inork erasotzen ez baditu eta bizitza on bat badute...

Korrika egiten dute...



Haien janaria bilatzen dute...



Haien artean jolasten dute...



Hala ere, txikiak direnez, ez dira oso indartsuak eta arazoren bat agertzen denean (ekaitza bat dagoela, etsai bat agertzea, borroka bat izatea...), **ISILTZEN edo IZKUTATZEN dira eta IHES EGITEN dute.**

Hau ez zaie bakarrik saguei gertatzen, gizakiok ere batzuetan saguak bezala jokatzen dugu:

- g) Lagun batek gauzak kentzen dizkigunean...
- h) Oihu egiten badigute, iraintzen edo txarto begiratzen bagaituzte...
- i) Norbaitek engainatzen bagaitu...

BENETAKO GIZAKIAK AGRESIBITATERIK GABE DEFENDATUKO LIRATEKE, baina gu isiltzen eta beldurtzen gara, urduria sentitzen dugu... Saguak bezala.

Gogoratzen al duzu sagu bat bezala jokatu izan duzun egunen batean?

Pentsatu nola sentitu zinen...

Uste duzu beste modu batean jokatzen ikasi behar duzula? Bai? Goazen!!

DRAGOIAK

Dragoiak beste animalia mota bat dira. **HANDIAK, OSO INDARTSUAK, HARROPUTZAK ETA BASATIAK** dira.

Horregatik norbaitekin arazoren bat duenean, hau handia edo txikia izan, **AURRE EGITEN DIO** eta...




OSTIKADAK EMATEN ditu, **BULTZATZEN** eta **ZAPALTZEN** dute, **GAUZAK APURTZEN** dituzte, **OIHU** egiten dute eta **IRAINTZEN** dute.



Herensugeek ahulenak abusatzen dituzte. Horren ondorioz... **BORROKA BILATZEN** dute. Eta hau guztia, edozein arrazoiengatik: zerbaitek mintzen die, zerbait ez zaie gustatzen, etxeko lanak txarto dituzte, ez dakite galdera bati erantzuten, norbaitek haiek nahi duten zerbait du, norbaitek ez du haiek bezala pentsatzen...

Hori dela eta **AGRESIBOAK** eta **HARROPUTZAK**, bihurtzen dira.



Agian noizbait dragoi bat bezala jokatu duzu zure lagunekin, familiarekin, ezezagunekin...

Nola sentitzen zara horrela jokatzean?

Nola uste duzu sentitzen direla besteak?

Seguruenik KEZKATUTA, BELDURTUTA, DESEROSO, TRISTE... sentituko dira.

BAINA NOSKI...

Gizakiok ez dugu beti saguak edo herensugeak bezala jokutzen. Askotan

PERTSONAK gara:

**ZINTZOAK, MAITEKORRAK, JATORRAK, ONAK, ONGI HAZIAK,
TXERATSUAK...**

Eta beste batzuetan sagu-pertsonak edo herensuge-pertsonak bezala jokutzen dugu.

Orain dakizula beti saguak edo herensugeak bezala jokatzeari onaz ez dela... gizakiak bezala jokutzen iakin nahi duzu? Bai??

Orduan... Hona hemen lehenengo galdera: Nola uste duzu jokatu behar duela benetako gizaki batek?

III. Eranskina:

Hauek izan daitezke txartelen adibide batzuk:

<p>ZURE LAGUNAK MUSIKA OSO OZEN JARTZEN DU ETA EZIN DITUZU ETXEKO LANAK ONDO EGIN. ASKOTAN ESAN DIOZU BAINA EZ DIZU KASURIK EGITEN.</p> <p><i>Zuk pentsatzen duzu:</i></p> <p><u>Hobe izango da ezer gehiago ez esatea, bestela haserretu ahal da.</u></p>	<p>ZURE AITON-AMONEN ETXERA ZOAZ ETA ETENGABE GEHIAGO JATEA ESATEN DIZUTE, BAINA ZUK EZ DUZU GEHIAGORIK JAN NAHI.</p> <p><u>Eskertzen dizuet, baina ez dut ezer gehiagorik jan nahi.</u></p>
---	---

<p>ZURE LAGUN BATEK ZUK DUZUN BESTE LAGUN BATEKIN HASERRETZEN DA, BAINA EZ DUZU ERDIAN SARTU NAHI.</p> <p><u>Bost axola, zuen arazoak ez zaizkit interesatzen.</u></p>	<p>LAGUN BATEK KRITIKATU DIZU INOLAKO ARRAOZIRIK GABE</p> <p><u>Nik ez dut horrela ikusten, baina eskertzen dizut pentsatzen duzuna esatea.</u></p>
---	--

<p>IRAKASLEAK EGIN DUZUN LAN BIKAIN BATENGATIK ZORIONDU ZAITU.</p> <p><u>Akats asko ditu, ez da gelditu nik nahi nuen moduan.</u></p>
--

IV. Eranskina:

Hau izan daiteke taula horren adibidea, kasu honetan Davis-ek, McKay-k eta Eshelman-ek (1985) aipatzen dituztenetan oinarrituta dago, baina askoz gehiago egon daitezke (grisez oker daudenak eta morez ondo daudenak).

Akatsak egitea lotsagarria da.	Akatsak egitek eskubidea daukazu, ez da ezer gertatzen.
--------------------------------	---

Besteen iritziak eta pentsamenduak onartu behar dituzu, autoritate kutsu bat duten arren. Hobe da isiltzea, entzute eta ikastea desberdin pentsatzen baduzu.	Zuk zeure pentsamendu eta sinesmen propioak izareko eskubidea daukazu.
Atzo modu batean pentsatzen bazenuen, gaur berdin pentsatu behar duzu.	Zure iritzia eta ideiak aldatzeko eskubidea duzu.
Ezin diet besteei haien denbora galtzea egin, nire arazoak ez dute garrantzirik.	Laguntza eskatzeko eskubidea daukazu.
Jendeari ez zaio gustatzen norbait txarto dagoela entzutea, hobe isiltzea.	Guztiok mina sentitzen dugu eta hau adierazteko eskubidea daukagu.
Besteek proposatzen dutenari moldatu, beti. Bestela bakarrik geldituko zara.	Zerbait gustatzen ez bazaizu, beste proposamen bat egiteko edo “ez” esateko eskubidea daukazu.
Norbaitek esate duena ulertzen ez baduzu, hobe da ez galdetzea. Zalantzak galdetzea inozoen kontua da.	Zerbait ulertzen ez baduzu, modu egoki batean (hitz egiteko txanda eskatuz) zalantzak galdetzeko eskubidea daukazu.

V. Eranskina:

GALDETEGIA

Izena: _____ Data: _____

1. Ikaskide batek oso jatorra naizela esaten dit.
 - a. “Eskerrik asko.”
 - b. Gorritzen naiz eta ez dut ezer esaten.
 - c. “Eskerrik asko, beti oso jatorra naiz.”
2. Ikaskide batek zerbait oso ondo egin du.
 - a. “Ez dago txarto.”
 - b. “Ondo dago, baina beste ikaskidearena hobeto dago.”
 - c. “Ze ondo atera zizun!”
3. Marrazki bat egiten ari naiz eta ikaskide batek gustatzen ez zaiola esaten dit.

- a. "Sentitzen dut zure gustukoa ez izatea, niri gustatzen zait!"
 - b. "Berdin zait zuri ez gustatzea, ez da zuretzat."
 - c. Blokeatuko nintzateke eta ez nuke jakingo zer esan.
4. Lagun batekin zinemara joateko gelditu naiz eta 30 minutu berandu iritsi da. Gainera, ez dit inolako azalpenik ematen eta ez dit barkamena eskatzen.
- a. "Ez zait ondo iruditzen hainbeste denbora itxaroten egon behar izatea eta gainera barkamenik ez jasotzea."
 - b. Ez diot ezer esaten, ez naiz ausartzen.
 - c. Zineman haserretuta sartzen naiz eta ez diot kasurik egiten.
5. Norbaitek fabore bat egitea behar dut.
- a. "Mesede bate gin ahal didazu?" eta behar dudana azaltzen diot.
 - b. Mesede bat behar dudala intsinnatzen diot.
 - c. Mesede bat egitera behartzen dut.
6. Nire laguna kezkatuta dago bere ama gaixorik dagoelako.
- a. "Kezkatuta zaudela nabaritzen dut, edozertan lagundu ahal dizut?"
 - b. Berarekin nago baina ez diot ezer esaten.
 - c. "Baina zer gertatzen zaizu??"
7. Lagun batek bere erlojua lapurtu diodala esaten dit, nik egin ez dudana arren.
- a. "Nik ez dut hartu, ezin duzu jendea akusatu egia ez bada."
 - b. "Ni ez naiz izan, memelo!"
 - c. "Zergatik diozu hori?"
8. Norbaitek oso ondo egin dudana zerbaitengatik zoriontzin nau.
- a. Ez naiz ausartzen ezer esatera.
 - b. "Bai, oso azkarra naiz!"
 - c. "Eskerrik asko!"
9. Norbait oso jatorra izan da zurekin.
- a. "Oso ondo portatu zara nirekin, eskerrik asko."
 - b. Bakarrik eskerrak ematen diot, zergatik esan gabe eta oso baxu.
 - c. "Ondo portatu zara nirekin, baina uste dut oraindik hobeagoa izan behar zenuela."
10. Ilara batean nago eta norbait nire aurretik jartzen da.
- a. Komentarioak baxu egiten ditut, hala nola "persona batzuk ez dakite errespetua zer den", persona horri zuzenean ezer esan gabe.
 - b. "Ilararen amaierara joan zaitez, ergela!"
 - c. "Gu lehenago iritsi gara, mesedez, ilararen amaierara joan."
11. Norbaitek asko molestatzen nauen ezizena jartzen dit.

- a. “Ni ez naiz horrela deitzen, ez nazazu horrela berriro deitu.”
 - b. Serio begiratzen diot, baina ez diot ezer esaten.
 - c. “Berriro hori esaten badidazu, ikusiko duzu...”
12. Norbait nik nahi dudan zerbait erabiltzen ari da.
- a. Ez diot eskatzen eta erabili gabe gelditzen naiz.
 - b. Kentzen diot.
 - c. Mesedez eskatzen diot.
13. Marrazki bat egiten ari naizen bitartean, norbaitek galdetzen dit: “zer egiten ari zara?”
- a. Marrazten jarraitzen dut ezer esan gabe ausartzen ez naizelako.
 - b. “Zuri bost axola!”
 - c. Marrazteari uzten diot momentu batez, egiten ari naizena azaltzen diot eta nire marrazkia erakusten diot.
14. Buruarekin atearen kontra jotzen naiz eta mina hartzen dut. Geroago norbaitek ea ondo nagoen galdetzen dit.
- a. “Ondo nago, bakean utzi nazazu!”
 - b. “Kolpe bat hartu dut, eskerrik asko galdetzeagatik.”
 - c. “Bai, ez da ezer.”
15. Baloiarekin jolastean leiho bat apurtzen dut eta beste pertsona bati errieta botatzen diote.
- a. “Ez, berak ez du apurtu, ni izan naiz.”
 - b. “Uste dut bera ez dela izan.”
 - c. “Zelako zoritxarra zurea!”

VI. Eranskina:

HITZEZKO- ETA LITERATURA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA	Inoiz ez	Batzuetan	Normalean	Beti
Intonazio, gorputz-jarrera eta keinu egokiak erabiltzen ditu				
Bere ideien, gertaeren, bizipenen, sentimenduen eta iritzien berri emanaz parte hartzen du komunikazio-interakzioetan.				

Hitz egiteko txandak errespetatzen ditu.				
Oso adi entzuten die solaskideei, eta haiek esandakoari estu lotuta hitz egiten du.				

VII. Eranskina:

BALIO SOZIAL ETA ZIBIKOAK	Inoiz ez	Batzuetan	Normalean	Beti
Duintasunez eta errespetuz dihardu.				
Bere nortasunaren ezaugarri bereizgarriak ezagutzen eta bere gain hartzen ditu, eta asertibitatez agertzen ditu.				
Hitzezko eta hitzik gabeko hizkuntza orekatu eta errespetuzkoa erabiltzen du komunikatzeko.				
Autokontrola aplikatzen du erabakiak hartzean, negoziatzean eta gatazkak konpontzean.				
Bere emozioak behar bezala ezagutzen eta identifikatzen ditu.				
Bere sentimenduak, premiak eta eskubideak adierazten ditu, eta, aldi berean, besteenak errespetatzen ditu lankidetzaz-jardueretan. Modu irekian adierazten ditu bere ideiak eta iritziak.				
Jarrera pertsonalak neurritz eta errespetuz defendatzen ditu.				
Errespetuz berresten du bere burua.				
Ikaskideen argudioak onartzen ditu, eta bere diskurtsoan txertatzen ditu.				
Akordioak lortzen ditu elkarriketaren bidez eta bere iritziarekin bat ez datozen elementuak onartuz.				

VIII. Eranskina:

KONPETENTZIA MOTORRA	Inoiz ez	Batzuetan	Normalean	Beti
Hizkuntzaren eta/edo mugimenduaren bidez adierazten du sentitzen duena.				
Hitzen bidez adierazten ditu ikaskideek gorputzaren eta mugimenduaren bidez adierazten dituzten mezuak.				
Gorputzaren adierazpen-baliabideak erabiltzen ditu sentimenduak eta ideiak komunikatzeko.				

IX. Eranskina:

Data: _____

Orain saioa amaitu dela...

1. Gustura parte hartu duzu?
2. Norbaitek sentitzen duenaz barre egin duzu?
3. Norbaitek sentitzen duzunaz barre egin du?
4. Saioa gustatu zaizu?
5. Zerbait aldatuko zenuke?
6. Hurrengo saioetarako proposamenak:
.....
.....
.....